



ARGIA



'IMAGO VASCONIAE' ATLASA

Euskal Herriaren nortasun agiri kartografikoa

24-31. orrialdeak



**"36ko Gerraren
traumak bizi ditugu
oraindik"**

14 | BEGO ARIZNABARRETA



**Akainak eta eltxo
tigreak: arriskuak
eta uste ustelak**

32 | AITOR CEVIDANES




**Idazlearen
estereotipoak
hausten, EHra etorri
eta 100 urtera**

44 | ERNEST HEMINGWAY

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

LARRUN #298
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



HAURREN AURKAKO SEXU ABUSUEN
AURREAN ARDURA HARTZEA

ARGIA.EUS/LARRUN

Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU



AZALEKO ARGAZKIA: AITOR GARMENDIA

Iritziak

- 19 | DAVID BOU
- 20 | KATIXA DOLHARE
- 21 | IÑAKI BARCENA
- 21 | LEIRE NARBAIZA
- 22 | GORKA MENENDEZ

Finkoak

- 38 | ARGIA KOMUNITATEA
- 39 | DENBORAREN MAKINA
- 40 | BIZI BARATZEA
- 50 | DENBORA-PASAK
- 51 | KULTUR-KRITIKAK
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT

ZALDI ERO / ARGIA CC-BY 2.0



14 | BEGO ARIZNABARRETA, GERRAZ

"Etxean presente izan da beti gerra, eta gerraren mina", esan dio antropologoak Miel A. Elustondori, elkarrizketa mamitsuan. Aita hil ostean aurkitutako bere idazkietan oinarrituta gerrari buruzko artikulua mardula osatu du. Hauxe bere mezua: "Ni miliziano baten alaba naiz. (...) Aitak ezker-eskuin ikusi zituen hildakoak, berak ere hil zituen, eta nik, berriz, gerren kontra idatzi nahi izan dut, sekulako sufrimendua eta traumak sortzen dituzte eta".

Elkarrizketak eta erreportajeak

12 | NET HURBIL

Desesperazioz RN bozkatu dutenak konbentzitzean datza ezkerren erronka

Jenofa Berhokoirigoin

24 | HISTORIA

Mapen lorratza herri baten historian

Urko Apaolaza

32 | OSASUNA | AITOR CEVIDANES

"Akaina egunean bertan kenduta ez dago arriskurik"

Mikel Garcia

36 | GORPUTZ HOTSAK | MERCEDES ORTEGA

"Dragon Boat-arekin gorputzarengan geneukan konfiantza berreskuratzen dugu"

Olaia L. Garaialde

44 | KULTURA

Ernest Hemingway-k mendea egin du Euskal Herrian

Patxi Gaztelumendi


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO
SAILBURUORDEZTAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

 KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

Jabetza

 Komunikazio Biziagoa
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

Erredakzioa

 Axier Lopez, Eneritz Arzallus,
Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano,
Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner,
Julen Ugartemendia, Lander Arbelaitz,
Leire Artola, Manex Moreno,
Manex Usarralde, Mikel Garcia,
Onintza Irureta, Olaia L. Garaialde,
Pello Zubiria, Urko Apaolaza,
Xabier Letona, Zigor Oleaga

Diseinua

Maitane Gartzandiandia

Argazkilaria

Dani Blanco

Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarde

Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

Banaketa

Olatz Korta

Azoka

Mikel Olabide

Idazkaritza

 Ane Gaztelumendi, Aloña Sorraluze,
Bego Zuzá

Web garapena

Asier Iturralde

Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

Lege gordailua: SS 837-2012

ISSN: 0213-909X

Batzorde parekidea: 72562 E

GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

Posta elektronikoa

 komertzial@argia.eus
komunitatea@argia.eus

Telefonia

943371545

Gipuzkoa


Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,
31001 Iruñea

 Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA
honako enprekin batera:


Doan eta libre

 ARGIAko edukiak kopiatu,
moldatu, zabaldu eta argitara
ditzakezu, gure egiletza aitortu eta
baldintza beretan eginez gero.

 Lizentzia hau baliagarria da
testuentzat eta, argazkien eta
ilustrazioen kasuan, ARGIAren
sinadura daramatenentzat soilik.

 Ekoedizioaren Institutuko
bazkide da ARGIA



The Boys

Ordu batzuk baino ez dira igaro eta argazki hau ia mundu osoan ezaguna da. Trump odoletan, ukabila gora, jarraitzaileei begira, garrasi batean, atzean AEBetako bandera duela. Zentimetro gutxiengatik bizitza salbatu ei du. *The Boys* telesaileko gidoilariek ez zuten hobeto egingo. Berriki zigor penala ezarri dioten aberaskumea, orain martiria da. Eskuin muturra ospatzen ari da bere txapelduna heroi bihurtu izana. Komunikazio eta propaganda adituek lan eskerga izanen dute argazki honek hauteskundeetan izango duen eragina aletzeko. Denborak esango du. Baina show politikoaz haratago, ez dugu ahaztu behar gaitz endemiko baten adierazpena dela: Mendebaldearen ustezko erreferentea indarkeriaren epidemia batek jota dago, armagintza-industria ahalguztiduna eta kontrolik gabeko arma-jabetza masiboa motor nagusi direla.

📷 EVAN VUCCI / AP

🔗 AXIER LOPEZ



"Solaria enpresaren estrategia mafioso da"

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Solaria multinazionalak 100 hektareako parke fotovoltaikoa eta eskualdea zeharkatuko lukeen Oso Goi Tentsioko Linea eraiki nahi ditu Arabako Gorbeialdean. Herritarrak aurka antolatu dira eta ekimen jendetsu ugari burutu dute denbora gutxian. Baina Gorbeialdeakoa Solariak Araban duen egitasmo orokorraren parte bat da soilik. Bitartean, proiektuak aurkeztean "iruzur" egitea edo lur jabeak "jazarri" eta "presionatzea" leporatu diote enpresari hainbat eragilek. Horretaz guztiaz hitz egin dugu Unai Pascual Zigoitiko bizilagun eta Gorbeialdea Defendatu plataformako kidearekin.

Zierbena Solar 3 proiektua bultzatzen ari da Solaria enpresa Arabako Gorbeialdean, nola eragingo lioke eskualdeari?

100 hektarea baino gehiagoko industriagune fotovoltaikoa ezarri nahi dute. Hori jada publikoa da. Baina badakigu beste 100 hektareatako bigarren proiektu bat ere aurkeztuko dutela, eta Araban 30 proiektutik gora dituela aurreikusita Solariak.

Elektrizitate linea bat aterako litzateke parke fotovoltaikotik, Oso Goi Tentsioko [400 kilovot-etik goragoko tentsiokoak] beste linea batera konektatuko litzatekeena. Linea horrek 100

kilometro baino gehiago izango ditu, Araba hegoaldetik Zierbenaraino (Bizkaia) eramango luke argindarra. Dorre erraldoiak eraiki nahi dituzte, 70-100 metroko tartearekin elkarren artean eta 100 metro inguruko altuerakoak. Bilboko Iberdrolaren eraikin famatuak 100 eta gutxi metro ditu, pentsa.

Energia trantsizioaren eta klima larrialdia saihesteko neurrien alde zaudetela esan duzue, baina "natura eta biztanleak errespetatuz".

Gobernantza arazo bat dugu. *Far West* antzeko batean gaude: heltzen lehena den enpresak lurra hartu eta nahi duena egiten du. Solaria da gurean aitzindaria, enpresa erraldoia, baina gehiago ere heldu daitezke. Ez badugu lurralde plangintzarik eta gizarte eztabaidarik, hau desastre hutsa izango da. Aragoi elektrizitate kopuru izugarria ari da ekoizten Forestalia enpresa, Gasteizera eramateko. Eta plana da Araban ekoiztuko litzatekeen elektrizitatea Zierbenara eramatea, Bizkaiko kostaldera. Ez du ez hankarik ez bururik.

Enpresa "iruzurra" egiten ari dela salat du Lurra sareak, proiektuak zatikatuz.

Solaria enpresaren estrategia mafioso da. Badakigu 30 proiektu inguru dituela

aurreikusita, orain arte hiruzpalau aurkeztu baditu ere. Proiektu horiek guztiak elkarrekin aztertu beharko lirateke ingurumen inpaktuaren balorazioa egiteko orduan, ez zatika. Linea berera botako lukete ekoizten duten energia, Zierbenara eramateko. Proiektu erraldoi bakarra dira. Batetik, makroproiektu bakar gisa aurkeztuko balute, sortuko lukeen erantzun soziala askoz handiago litzateke. Bestetik, proiektu bakoitzak 49,895MWe-ko potentzia izango lukeela diote. 50MW-tik gora Madrilek erabakitzen du, ez Gasteizek, eta hori ere saihestu nahi dute.

Lur jabeen gaineko "jazarpena" ere salat duzue Gorbeialdean.

Solaria oso modu intentsuan eta treguarik gabe aritu da lur jabe guztien atzetik, banan-banan, 35 urterako alokatzea edo saltzea lortu nahian. Adibidez, Zigoitiko kasuan, soilik esaten zieten "zure hektarea pareka alokatzea gustatuko litzaiguke plaka batzuk jartzeko...". Baina esan gabe proiektua 100 hektareakoa dela. Hori jakinez gero, saltzeko prest egon daitezkeen batzuek ez lukete salduko. Edo esanez tratua egiten ez badute eta besteek bai, aurrerago akaso desjabetu egingo dietela lurra. Antzeko praktika mafioso ugari erabiltzen dituzte.

Nola ari zarete lanean proiektuaren aurkakoak?

Proiektua ezagutu genuen unetik antolatzen hasi ginen hiru udalerrietan, bakoitzak bere plataforma propioa du [Urkabustaiz Babestuz, Zuia Bidean eta Zigoitia Bai] baina Gorbeialdea Defendatu sortu dugu koordinatuta lan egiteko. Zigoitian ostiralero egiten dugu asanblada irekia, hasieran 200 pertsona inguru batzen ginen, orain jaitsi da baina ehundik gora elkartzen gara. Lan talde espezializatuak sortu ditugu ingurumen eta osasun arloa lantzeko. Komunitate energetikoen sorrera ere bultzatzen ari gara. Bi hilabete oso intentsu izan dira, baina hau luzerako doa, beraz antolakuntza, antolakuntza eta antolakuntza. Senti-mendua da Solariak ez duela lortuko, ez direla pasako gure lurren gainetik. ●



GORBEIALDEA DEFENDATU

MATERIALISMO HISTERIKOA

Txatarra



UXUE APAOLAZA LARREA

U sainak keinuren bat eskatzen zuen, baina berak egin ez zue-
nez (ezin zitekeenez beste usainik espero), besteok ere ez.
“Ez, ez, ez daude denak. Bizirik dirautenen atalik ez dago,
ez dut inor bizirik utzi, adibidez, ezpainik gabe (ikusi dituzue?
Horiek perfektuak iruditzen zitzaizkidan hauek eta beren barrea
azaldu arte). Biziraun dutenak osorik nahi ditut, eta, batez ere, ez
dute giltzapeko museorik behar. Hauek nik hil ditut, alegia, hiltze-
ko zerbait-zerbait eduki behar zuten. Honen kizkurak, ez zuen
gogoratzeko asko izango ilea kontserbatu badut (zangoak mindu
zitzaizkidan zakila sar zekidan zain, barruan zegoela ohartzera,
horregatik ari zela mugitzen, ez bila zebilelako). Eskuak batenak
bakarrik, miatzen zekiten bakarrak: beste guztiek 'laxandu' (as-
tindu, zapaldu?) zituzten nireak baino titi askoz handiagoak, eta,
beraz, mina eman zidaten; edo klitoria harraskatu zuten segundo
luzez ez zen tokian; edo porno intentsitatez hasi ziren... pare bat
salbatzeko zorian egon naiz ipurmasailak osorik heltzen zizki-
daten moduagatik, baina baztertu ditut, aluaren mesedetan. Ez
zuten buruargitasunik, ez zuten bizitza interesgarririk, ez zuten
egia esentzialekiko loturarik... dena asmatu nien nik. Beraz, dena
kendu ere bai. Lehenengoaren eta azkenaren atal bat baino gehia-
go errepikatzen dela ohartu naiz. Zakilak, begiratu ondo, zorte
ona eduki dut. Eder geratu dira egurrezko oinarri horietan, tira,
apur bat berdekarra, formolagatik izango da. Lehenengo lodiegi-
txoa zen, agian, mizkin jarrita, kristalezko Kas botila baten azpiko
aldearen antzekoa: oztopo handiagoa zen ahoan beste zuloetan
baino, eta behatzen efikazia gaintitzen zuen komunean zituzten
zereginetan. Azkenarena perfektua zen, egun osoan barruan era-
mateko modukoa. XL simetrikoko baginodinamikoak. Hemen daude
bien ile luzeak ere, nire kriptonita. Eta museoko pieza ikusgarriak:
toraxak. Begiratu gora, sabaitik zintzilik jarri ditut, zientzia
museoetan baleenak nola. Hemen azpitik miresteko. Ez penarik
sentitu. Batzuk ez daude hemen ere, egunerokoaren burokrata
zonbiak, zigorrak betetzen direla frogatu behar zaienak. Hasie-
ratik dakizu, ez, ez, inoiz-inoiz ez naiz izango artilezko txaketa
handiegia daramatzan eta xuxurlatan hitz egiten duen beti-neska
txiki delikatu begi (eta abar) handia izango, eta beti-beti lotsatuko
zaitut lagunena eta familiaren aurrean. Ez-bizitzak arau pila bat
ditu, eta oso baxu hitz egiten du. Baina despistatuarena egiten
dugu, ea oker gauden behingoz. Etorri, mingain honek, horrela,
hain berde, ez dirudi, eta ez da toraxak bezain ikusgarria, baina
ez du parekorik izan. Ez zuen ezezkorik onartzen, edozein jarle-
ku lau zen ona, edozein bizi-momentu, edozein... mingain hura
azaltzen bazen, ezetza mesedez bat zen. Goazen hemendik bai.
Ez, ez, ez da izango hurrengorik. Inor ez da inoiz hurrengoa izan.
Berez, inoiz ez nintzen hemen izan. Zertarako, hemen ez dago ezer
bizirik. Beraientzat ere beti nintzen lehen aldiz. Lapurto dutena ez
da ordezkagarria”. Itxi nuen giltzaz, behingoz, eta han utzi nuen,
marmarka, txatarra artean. Nik sudurra itxi nuen, eta komatxoak
beharko nituela erabaki. ●

EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



Hemengoa



ULA IRURETAGOIENA

Ordenagailua itxi, txankletak jantzi, eguzki-kremaz laztandu. Nora zoaz oporretan? Oporrak egitea nonbaitera joatea dela normalizatu dugu, deskantsuak distantzia behar duelako, diogu. Eta bidaia egitean, turista bilakatuko gara, izendapen aldaketak deserosotasun bat sortzen baldin badigu ere, turista hitza karga iraingarriaz bete dugulako dagoeneko. Turista *soft* izateko desioan, agian naturara jotzea erabakiko dugu, hiritar turistaren efektu harrapakaria zabalduago dagoelako naturaren turista baino.

Hirietatik kanpo dagoen lurraldeak, berdego ikusten bada ere, hiriaren dinamika berdinak pairatzen ditu eta ai!, turistifikazio fenomenoaren izurritea iritsi zaio. Landako udalerriek ez dute turismoak ekar dezakeen ekonomiaren aukeratik kanpo gelditu nahi, eta bisitariari aisialdi pack baten eskaintza egiten dio. Erreketan rafting egiteko aukera, basoetan egurrezko bideak eta azalpen-afixak, ibiltzeko irteera-gidatuak, interpretazio-zentro baten bisita, agenda kultural bat, festa ekitaldiak, gastronomiakatak, postaleko herrixken ondare arkitektonikoaren bisita. Landa guneak dauzkan balio salgarriak baso eta landare ingurunea eta landako ondare kulturala dira, batzuetan artifizialki mantendutako herrigune eta paisaiak sortzera arte, ustiapen-balore baitira. Errealitate distorsionatu bat turistaren neurriera egina.

Landa gunera gerturatzeko gara esperientziak eta sentsazioak kontsumitzera, izan kirol edo natura bizipen gisara. Lurraldearen ulermen bat erakusten dugu: eszenatoki polit bat ikustera iristen gara, eta ildo beretik, plazera eta entretenimendua ematea eskatuko diogu, eta bertako produktuez tripa betetzea. Landa lurraldearen dimentsio somatikoa berriz, ikusezin eta galduta.

Natura eta landa eremuaz egiten dugun erabilera funtzionalaz sakon aztertzeke, eta turistaren motxilan udako irakurketa bat eramatekoak bazarete, Marc Badal-en *Geografías de la ingravidez* gomendatzen dizuet. Udaldi on. ●

Gamarra vs Mendizorrotza: segregazioa Gasteizko udal igerilekuetan?

ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

Igerilekuak klase gatazka ulertzeko ikasgela izan daitezke, gorputzen arteko aldeak aztertuta. Urte asko dira udal igerilekuetan igeri egiten dudala. Ia beti Aldabe gizarte-etxeokan, Alde Zaharra eta Errota auzoen artean kokatuta. Baina garai bat egon zen Mendizorrotzako igerileku estalietara joaten nintzena, izen bereko auzoan kokatuak. Gorputzen arteko aldeak nabarmenak ziren batetik bestera: osasuntsuagoak edo gaixoagoak, zahartzaroaren arrasto gehiago edo gutxiago dutenak, arau estetikoan sarrarazteko baliabideak dituztenak eta ez dituztenak... Gorputzek ez diote gezurrik: Alde Zaharra eta Errota auzokoei Gasteizko txirotuenen artean daude (14.660 eta 15.697 euroko errenta batez beste, Eustaten azken datuen arabera); Mendizorrotza, aldiz, aberastuenen bizitokia da (34.020 euro). Hori, jakinik Mendizorrotzako auzokideetako asko igerileku publikoaren ondoan dagoen Estadio igerileku pribatuetara joko dutela.

Estali gabeko Gasteizko udal igerilekuen denboraldia maiatzaren 24an hasi zen. Bi ditugu, Gamarra eta Mendizorrotza, igerilekuz gain hainbat kirol-zelaiz, tabernaz, belardi zabalez eta beste hornituak, udan hamarnaka milaka gasteiztarrek gozatzen dituztenak. Mendizorrotza erdigunetik hurbil dago, Gamarra aldirietako industria gune batean. Hor ere ikusi daiteke alderik gorputzetan, bereziki azal kolorean, eta ez du ematen gustu edota erabaki pertsonal libreen ondorio hutsa denik.

Gamarrako eguneko sarrerak 6,60 euro balio du; Mendizorrotzakoak 13,40. Gamarrako uda denboraldi osorako abonua (maiatzaren 24tik irailaren 15era) 31,50 euroko prezioa du; Mendizorrotzakoak... Mendizorrotzan ez dago denboraldi osoko abonurik. Bai, ordea, hilabeteko eta hamabostaldiko abonua: hilabetekoagatik 64,10 euro ordaindu behar da, hamabost egunekoagatik 38,20 euro. Hau da, Mendizorrotzan hamabostaldi bat gozatzea Gamarran lau hilabetez egitea baino garestiago irteten da (proportzioan, zortzi aldiz garestiago), eta egun bakarraz gozatzea bikoitza. Bi tokietara sartzeko aukera du Gasteizko kirol instalazioetarako urteko abonua egiten duenak ere (alta ematea 52 euro, urteko kuota 95,40). Ezagutzen ez dituenarentzat, Mendizorrotzako azpiegiturak ez dira inolaz ere Gamarrakoen bikoitzak, are gutxiago zortzikoitza. Azken datu esanguratsu bat: baztertutako herritarrekin lan egiten duten hiriko kale hezitzaileek edo elkarteek aukera dute udal igerilekuetarako txartelak lortzeko udaletxeari eskatuta... Gamarrarako, beti ere.

Ghettoa, nolabait, Mendizorrotzako da, gorputz eta poltsiko askoz uniformeagoen aisileku. Gamarrako erabiltzaileak askotarikoak dira, Gasteizko errealitatearen ispilu fidelagoa, Mendizorrotzara joan ezin dutenak zein ahal dutenak nahasten baitira bertan (baita inguruko herrietako edo Debagoienako herritar ugari ere). Arazoa da mundu mailako pertsonen joan-etorriekin ematen den bera: batzuk nahinora joatea dugu, beste batzuk ez, eta dirua da multzo batean edo bestean kokatzen gaituena. Baita igerileku publikoetan ere.

Zergatik herritarrak toki batera edo bestera errentaren arabera bideratzeko politika hau? "Administrazioak erantzuten du irizpide teknikoak direla", azaldu dit kale hezitzaile batek gaiak hizketan, "irizpide horiek dituzten ondorioak ez dituzte baloratzen". Baina edozein irizpide 'teknikoren' atzean beti daude balore politiko jakin batzuk, kontzienteagoak edo inkontzienteagoak izan. Zeintzuk dira Gasteizko Udalarenak? ●

1.000

milioi euro baino gehiago ordaindu dizkie Espainiako Estatuak Enpresa militar israeldarrei, Gazako genozidioa hasi zenetik. Armak erosteaz gain, urritik hona Europar Batasunetik Israelera arma gehien bidali dituzten herrialdeetan bosgarrena da Espainia.

0,14

gradu zentigradu altuagoa izan da aurtengo ekaina, iazkoarekin alderatuta. Hala, ekainik beroena izan da mundu mailan, erregistroak daudenetik.

%46

Arrazakeria salaketa kasuen %46an, Polizia da diskriminatzen duena, Bizkaiko SOS Arrazakeriaren bulegoan erregistratutako salaketen arabera.

“Bost-hamar urtetan EAEko ikastetxeen %10-20 ixteko arriskua dago”

LUCAS GORTAZAR

Esade EcPol erakundeko kidea.

2024-07-05



**“ASPERDURARI
AURRE EGITEKO ERE,
PALESTINARREI TIRO
EGITEA BAIMENTZEN
DUTE KOMANDANTEEK”**

SOLDADU ISRAELDARRAK

Israelgo +972 eta Local Call hedabideekin hitz egin dute Gazan aktibo egotetik itzuli berri diren sei soldaduk. Soldaduek jakinarazi dute palestinarrei nahieran tiro egiteko baimena jaso dutela, baita zibilei ere.

2024-07-11

“Erasoei begira, lanketa aski apala da oraindik Baionako bestetan”



ENEKA BARNETX BORDA

Zizpa gaztetxeko kidea.

EUSKAL IRRATIAK (2024-07-10)

TEKNOLOGIA

Euskalgintza digital kritikoa



DIANA FRANCO EGUREN

Euskara, eremu digitala den itsasoan ezagutzara eta harremanetara abiatzeko portua da. Adimen artifizialarekin, portu horretatik mundu osoarekin euskaraz harremanetan jartzeko aukera ematen dela dirudi. Euskararen automatizazioa laguntza ederra da belaunaldi berriekin euskal kulturaren transmisioa lantzen dabiltzan hezitzaileen zat. Baina ez da nahikoa. Eremu digitalean, euskaraz ez ezik, modu osasuntsuan hezteko helburua izan beharko genuke. Horretarako, hobeto ulertu beharko genuke eremu digitalean diharduten eragileen interesak eta eraginak etorkizuneko belaunaldietan. Beharbada, aniztasun teknologikoaren ideia modu kontzienteagoan landu behar dugu, hau da, orain arteko euskalgintza digitalari beste dinamika batzuk gehitu behar dizkiogu: dugun eredu digitala zalantzan jartzen jarraitu, nahi dugun gizarte eredura egokituko den eremu digital euskalduna sortuz. Uzta on baterako, baratzeko sasiak kentzea bezala, eremu digitalean etengabeko hausnarketa kritikoa beharrezkoa da. Kosta egiten zaigu, oraindik ez baitakigu ondo bereizten zer dan digitalizazio osasuntsua eta zein parasitarioa, zeinek laguntzen gaituen bizitza on baten bidean eta zeinek ez. Zentzu horretan, berri interesgarri bat partekatu dute Hezkuntza Librezale Telegram taldeko partaideek: Datuak Babesteko Euskal Agintaritzak ikastetxe askotan erabiltzen den Google Workspace baliabideak DBEO (Datuen Babeserako Erreglamentu Orokorrak) urratu dezakeela ohartarazten duen ebazpena (2023an egin zen salaketa baten harira). Ebazpen horren arabera, Hezkuntza Sailak ez zituen inpaktu ebaluazioak egin datuen tratamenduaren inguruan, beharrezko kasu hauetan: datuak eskala handitan erabiltzen direnean, bazterkeria arriskuan egon daitezkeen pertsonen kasuan, 14 urte baino gutxiagokoen kasuan, datuak jasotzeko modu berriak sortzeko teknologia ezberdinak nahastean. Horrelako ebazpenak denontzako onuragarriagoa izango den hezkuntza eta euskalgintza digital kritikoa baterako aurrerapausoak dira, eta ezagutza sortzen eta bide berriak eraikitzen laguntzen dute. ●

NAZIOARTEA

Katalunian dira Tsunami auziko erbesteratuak

GORKA PEÑAGARIKANO GOIKOETXEA

Joan den astetik, etxean dira ERCko idazkari nagusi Marta Rovira, ERCko diputatu Ruben Wagensberg, Òmnium Culturaleko Oleguer Serra, enpresari Josep Campmajó eta *Directa*-ko kazetari Jesús Rodríguez, Tsunami auziko inputatu erbesteratuak. Abiatu aurretik, agur kutsuko juntadizoa egin zuten Genevan, Suitzan, autoa hartzeko unean eta hara joan diren hedabide kataluniarren aurrean. Egun bat geroago, Cantallops-en elkartu ziren, Gironan, Wagensberg bizi den herrian. Ekitaldi politiko bateratua egin zuten bertan.

Tsunami Democràtic-en aurkako ikerketa judiziala 2020an abiatu bazen ere, 2023ko azarora arte ez ziren mahai gainean jarri terrorismo eta giza eskubideen aurkako delituak, hain justu ere Espainiako Kongresuko alderdiak Amnistia Legearen negoziaketa bete-betean zeudenean. Iazko uztailleko hauteskunde on-dotik, Espainiako gobernu berriaren osaketarako PSOEk ez du aski erraz gehiengoa eskuratzetik izan: ezinbesteko zituen alderdi euskaldun eta katalan independentisten babesak. Orduan, Junts-ek -Carles Puigdemonten alderdiak- bere botoak PSOEren eskura jarri zituen baldin eta buruzagi independentistak amnistiatzen bazituen eta erreferendum berri bati bide ematen bazion -azken eskaera hori ahanzturan geratu da-.

Amnistia Legearen lehen testuak ezagutzera eman zirenean, Tsunami Democràticen aurkako auzia ikeretzen ari zen Auzitegi Nazionalako epaile Manuel García-Castellónek terrorismo delitua jarri zuen mahai gainean, propio, delitu horiek ezin baitira amnistia lege bidez indargabetu. Puigdemont eta Wagensberg, bata europarlamentarioa eta bestea Kataluniako Parlamentuko diputatu izanik, aforatu babesa dutenez, Auzitegi Gorenaren eskuetan geratu ziren; baina berdin-berdin, Auzitegi Nazionalaren argudioak hitzez hitz erosi zituen Gorenak.

Testuinguru horretan, iazko azaroan, hamabi pertsona terrorismo eta giza eskubideen aurkako delituagatik inputatu zituen Espainiako botere judizialak. Orduantxe erabaki zuten Wagensberg, Rodríguez, Serra eta Campmajó erbestera joatea. Suitzan egon dira, Genevan ia denak.

Itzultzeko aukera errazik ez duena, momentuz, Puigdemont da. Tsunami auzia artxibatu bada ere, 2017ko erreferendumean eta horren aurreko proçesean "aberastu" egin zela leporatzen dio Espainiako justiziak, diru publikoa "bidegabe" erabiltzeagatik. Gorenak uztailearen hasieran errebisatu du kasua, eta esan du delitu hori ez dela amnistiatzeko modukoa. ●



Librean zein gaiekin, ideologiaz zein bertso-eskoletako lanketaz

BERTSOZALE.EUS

Nondik eta zeri ari gaiztaizkio bertsoan? EHU-ren udako ikastaroan 50 lagun elkartu dira, bertsoaren inguruko gaiez gogoeta egiten.

Jexux Mari Irazu Muñoa izan da bigarren eguneko lehen hizlaria eta libreko bertso-gintzari buruz aritu da. Bere mugez eta aukerez hausnartu du, eta azaldu du libreko bertso-gintzan ere, ikastaroaren izenari keinu eginez, norik eta zeri kantatzen dion eragina duela. Gairik ez duen bertso-

gintza izaki, Irazuk esan du aukera ematen duela bertsolariak beren interesen erdigunean egongo den gaia plazaratzeko; eta, era berean, saioa antolatzerakoan bertsolari profil ahalik eta ugariena egotea dela komenigarriena, gaitegiak ez dezan desproporziorik sortu genero edota adin aldetik. Bestalde, aipatu du libreko bertso-gintzak plazan presentzia handia badu ere, hedapen aldetik jaialdiek eta txapelketek lortzen dutela oihartzun handiena. Horrek desorekarik sortu ote dezakeen gogoetatu du, baina ondorioztatu du: "Libreko bertso-gintzak asko zor dio txapelketari, jasotzen duen oihartzuna baita aldamenean daukalako egitura bat argi egiten diona, txapelketarena".

Gai-jartzaile autoreari buruz aritu dira Alaia Martin Etxebeste bertsolaria eta Imanol Artola Arretxe gai-jartzailea.



Biak ados egon dira gai-jartzailea bera ere autorea dela eta bere ikusgaitasun eza plazaratu dute. Artolak azaldu du saio batek aurretiko lan handia duela, eta orekaren garrantzia azpimarratu du: oreka bertsolarien, bertsoaldien eta ariketen artean. Berarekin bat etorri da Martin, eta orekaren garrantzia nabarmendu du harek ere; aldiz, inprobisazioa ere aipatu du, eta azaldu du garrantzitsuago ikusten duela oreka momentu jakin batean haustea, parte-hartzaile guztiak gusturago egotea ekarriko badu: "Bertsolarien altxaldi kopurua besteko garrantzitsua da zertarako altxarazi ditugun". Azkenik, Artolak azaldu du gaitegia lantzeko orduan, gai-jartzailea, entzuleak eta bertsolariak triangelu alde zuzen batean jartzen dituela, eta hirurak ahalik eta gertuen egotea izan behar dela helburua.

Egoera sozio-ekonomikoari kantatzen al zaio? galderarekin abiatu dira hurrengo bi hizlariak: Aitor Bizkarra Ruiz eta Oihana Iguaran Barandiaran. Hipotesi probokatzailleetatik abiatu da Aitor Bizkarra, eta erantzunetan "bainak" jartzera datorrela esan du. Bertso-gintzak eta oro har arteak politikarekin duen erlazioaz aritu da, eta bat-batekotasunak horretan zenbaterainoko eragina duen azaldu du.

Horri gaineratu dio eduki politikoa modu estetikoan egin nahi bada, plazako ulermen markoarekin bat egin behar duela. Esaten denaz gain, esaten ez denaren garrantzia ere azpimarratu nahi izan du.

Oihana Iguaranen esanetan, bertsolariak bizi dituen eta inguratzen duten errealitateak ditu kantagai; beraz, derri gor kantatzen die unean uneko egoera sozio-ekonomikoari eta politika gaiei. "Bertsolaritzak praktika komunikatibo gisa dituen baldintzen baitan osatzen da diskurtso hori, eta ondorioz, euskaraz eta Euskal Herritik egiteak ezartzen dizkion ikuspegietatik abiatzen da: Mendebaldeko, pribilegio zuridun, hizkuntza minorizatuan eta estaturik gabeko nazio batetik, hasteko. Kontua da, sortzaile gisa zenbateraino aurkitzen zaizkion zirrikituak abiapuntuko marko horri". ●

MOTZEAN

Espainiako Gotzainen Batzarrak onartu du sexu-abusuak jasan dituzten biktimei kalte-ordain ekonomikoak ordaintzea, baina elizbarruti eta kongregazioek ez dute nahitaz bete behar izango. Espainiako Gobernuak gogor kritikatu du plana, "aldebakarrez" egin delako, biktimekin kontaktu gabe.

BBK Livek hainbat eskubide urratzen dituela salatu dute (tartean janaria eta edaria ezin sartzeko eta eskudiruz ezin ordaintzea). Jaialdiko lan-baldintza "miserableak" ere kritikatu dituzte.

Frantziako Estatuaren aurkako protestak aitzina doaz Kanaky irlan eta Poliziak Rock Victorin gaztea hil du uztailaren 10ean, maiatzaz geroztik protestetan hildako zortzigarrena.

Ataunen hil da Maximo Aierbe Muxika, 74 urterekin. Aldekoak adina etsaitu Euskaldunon Egunkaria sortzeko inbertitzaileak erakartzen lan isil eta gogorrean aritu zen.

Donostian, 300 pertsona baino gehiago "pobrezia eta muturreko bazterkeria egoeran" bizi direla salatu dute Kaleko Afari Solidarioak (KAS) eta Hiritarron Harrera Sarea taldeek.

DESEPERAZIOZ RN BOZKATU DUTENAK KONBENTZITZEAN DATZA EZKERRAREN ERRONKA NAGUSIA

Hirugarren kokatu bada ere, pozik izatekoa badu eskuin muturreko RNk: inoiz baino azkarrago da Frantziako Legebiltzarrean –2017an zortzi diputatu zituen, 2022an 88 eta orain 143–. Bere hauteslegoa azkarki emendatuz doan heinean, anitzez zabalagoa du oinarria: eskualde desindustrializatuetao langileriak eta diploma gutikoak hor segitzen dute, baina hori baino anitzagoa bihurtu da RN bozkatzaileen profila. Eskuin muturrari aurre egiteko bidean, ardura handia du ezkerrek: bai ala bai bereganatu behar ditu desesperazioz eta kexuak bultzaturik RNra jotzen duten herritarrak, eta orain du aukera paregabea.

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Arnasa hartu du ezkerreko jendeak eta Frantziako Legebiltzarra eskuin muturraren esku nahi ez duen herritar orok uztailearen 7ko gau hartan. Arnasa hartu du lortu delako aste bakar batez RN alderdia lehen indarra izatetik hirugarren izatera gibelaraztea. Baina ez ditzagun pozez eta ignorantziak begiak estali: ez da izan aste batez RNren bozkatzaileak konbentzitu direlako. Lortu da "boto errepublikarrak" funtzionatu duelako: eskuin muturrari bidea mozteko jendeak bozkatu du, idealean bere hautagai kutunaren alde, eta okerrean, halabeharrez eta go-goaren kontra RNren parekoaren alde.

Baina noiz arte egonen da harresi hori zutik? 2002ko presidentzialetan Jacques Chirac eskuindarrak %82,21 egin zuen Jean-Marie Le Penen kontra, 2017an Emmanuel Macronek %66,10 Marine Le Penen kontra, eta 2022an, berriz ere Macronek, botoen %58,55 jasorik. Beti zutik bada ere, kraskatzen ari da boto errepublikarraren harresia –Macronek eskuin muturraren diskurtsoak, legediak eta neurriak bideratu izanean dugu ahultze horren arrazoietariko, eskuinaren eta eskuin muturraren muga ez delako iraganean bezain argia–.

Gainera, bi itzulien artean eskuin muturraren aldera itzultzen diren hautesleak ere geroz eta gehiago dira: 2002ko lehen itzulian baino 700.000 gehiago izan ziren urte horretako bigarren itzulian, 3.000.000z emendatu zen

kopurua 2017ko bi itzulien artean eta 5.000.000z 2022ko bi itzulien artean.

Oinarri sendoa du eskuin muturrak eta hauteskunde oro ditu hautesle berriak biltzen. 8,74 milioi boto jaso ditu RNk Legebiltzarrerako lehen itzulian eta 7,76 milioi Europako bozetan –2022ko presidentzialetarako bigarren itzulian 13,29 milioi zituen–. Garapen horren isla da Asanblea Nazionalean hartzen duen lekua: zortzi aulki zituen 2017an, 88 zituen 2022an eta 142 lortu ditu aldi honetan.

Eskuin muturrera doan boto hori aztertzen duen artikulu interesgarri andana bada Frantziako komunikabideetan. Hauteslegoa emendatzen doan heinean, zabaltzen ere doa eta RNzalearen profil soziologikoa ez da iraganean bezain homogenoa. Ipsos ikerketa bulegoko Brice Teinturier-en elkarrizketa badu *Libération* egunkariak eta ondokoa dio: "Duela zenbait urte langilea edo enplegatua zen [FN/RN bozkatzailea], landa eremukoa baino gehiago eremu desindustrializatuetao zen, diploma guti zuena, eta oro har, bere biziak asebetetzen ez zuena. Oinarri hori beti hor da, baina azken bi urteetan zabaldu da". Gaur egun adin tarte guziak ditugu RN bozkatzaileetan, gazteak eta adindunak ere bai; klase ertainekoa bada eta koadroak ere iragan hurbilean baino gehiago dira; diplomarik gabekoetan azkar segitzen du RNk, baina harago doa orain –demagun, batxilergotik aitzina lizentzia lortu dutenen artean hirukoiztu da–; eta soldata onekoak ere badira eskuin muturreko

bozkatzaileetan –%32ak 3.000 euro baino gehiago irabazten du hilabetean–. Baserri munduan lorturiko garapena dela eta, nabardura interesgarria dakar ikerlariak, zehaztuz eremu geografikoari baino gehiago so egin behar zaiola egoera sozioekonomikoari: "Landa eremuan hirian baino pobregoa den jendea bada. Aldagaia ez da baserri eremua versus hiri; aberastasunari begiratu behar zaio, isolamendu heinari baita alteritateari eta eskaintza politiko ezberdinari konfrontatua izateko gaitasunari ere. Ezkerra hiri handietan eta horien *banlieue*-tan kontzentratu da, landa eremuetatik lekututa. Baina berez, ez da landa eremua RNri lotuagoa dela. Bihar aberastasuna eta zerbitzu publikoak hobeto banatuak balira, orduan emaitza ezberdinak genituzke baserri munduan".

ARRAZISTAK OINARRIAN, BETI

RNren irudia ezitzeko estrategiak fruituak dakartza: geroz eta beldur gutiago eragiten du eskuin muturrak. Alaba ez da aita bezain gordinki mintzo, nahiz eta biek duten kalte guzieren errudun jartzen etorkina. Eskuin muturrean aditua den ikerlari Nonna Mayer-ek argi du: "RN bozkatzailea ez da aldatzen: %94k dio etorkin gehiegi badela Frantzian". Ondokoa irakurri dezakegu *Libération*-i eskainitako elkarrizketan: "Mundializazioak eta garapenak bazter-utzi izana sentitzen dutenak bereganatzen ditu RNk, European garatuz doan eskuin populista guziak bezala, funtsean. Ipsosen



ALDERDI INDARTSUA. Hauteskunde hauteskunde sendotzen ari da eskuin muturreko RN Batasun Nazionala. Zokoraturiko alderdi ttipi izatetik Frantziako alderdi nagusien artean kokatzera pasa da 50 urtez, eta batez ere azken urteetan. Argazkian, 2024ko uztailaren 7an izendaturiko RN diputatuak.

ikerketen arabera, RN hautesleen %50k dio bere egoera ekonomikoa okertzen doala, biziak ez duela asebetetzen eta ez duela merezi duen errespetua jasotzen. Baina adierazpen horiek beti doaz etorkinen kontrako jarrerarekin eskuz esku. Beraiek baino abantaila gehiago balute bezala irudikatzen dituzte".

EZKERRAK GUZIA IRABAZTEKO... ALA GALTZEKO

Ezkerreko FHB Fronte Herritar Berria kokatu da lehen Legebiltzarrean, eta sekulako erronkak ditu: gobernatzen dakiela erakustez gain, batasunean aitzina egiten dakiela ere frogatu beharko du. Baina horrez gain, desesperazioz eta kexuak akuilaturik eskuin muturrera jo duten bozkatzaileak bereganatu beharko ditu, esperantzaren ikur bihurturik ezkerra. Hori gabe, eskuin muturrak beti

azkar segituko duelako, eta parean ezkerreko batasunak %30 langa gainditu ezinean jarraituko duelako. Horretarako, langileriaren errealitateari begira jarri eta egokitu beharko zaio, bai ala bai. Gaur egun, oinarri horretatik deskonektaturik delako: "Inguru popularra bereganatzeko eta inguru hori nola bizi den ulertzeko lanketarik ez du eraman aspaldian ezkerrek. Horregatik, RNk ezkerrek baino hobeto ulertzen eta ordezkatzeko dituela sentitzen dute [klase sozial horretakoek]", Ipsoseko ikerlari Teinturieren hitzetan. Gauza bera landa eremuarentzat: hustuz doazen herri horien errealitateari begiratu behar dio ezkerrek, zintzoki horien alde inplikaturik.

FHBko diputatu François Ruffin aspaldian dabil bere eguneroko borroka langileei begira jartzen. Eskualde de-industrializatu batekoa da bera, eta

ikusten du bertako langileria klasea nola xarmatzen duen RNk. "Langileria galtzea oso larria da ezkerrentzat: ez da soilik botoen galtzea, bere arimaren galtzea ere da", irakurri dezakegu *Le Monde* egunkariari eskainitako elkarrizketan. Bertsolari edo rapero baten modura dio *Il nous faut rassembler la France des bourgs et la France des tours*. Hau da, landa eremutik auzo popularretara doan batasunaren garrantzia ohartarazten dabil etenik gabe. Dioenaz, uztailaren 7ko garaipenarekin "azken aukera" eman diote herritarrek ezkerari: mandatu betetzen lortzen ez badu, orduan, ondoko porrota segurra luke ezkerrek -beti ere eskuin muturraren onerako-. Azken aukera du beraz eta denbora kontaturik du: laster datoz 2027a eta bere baitan dakartzan Frantziako hauteskunde presidentzialak. ●



**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
zinkunegioptika.com





AHLEM

Bego Ariznabarreta Orbea

GERRARIK EZ



GURE AURREKOEK BIZITAKO GERRAREN TRAUMAK ETA SINTOMAK DITUGU ORAINDIK



Gurasoak hilik, etxeko ganbara husteari ekin zioten seme-alabek. Hainbat gauzaren artean, koaderno eta paper sorta, argazkiak eta nahi beste agiri. Bego Ariznabarreta Orbeak aita aspaldi zenduaren gerrako memoria harrigarriak zurian beltz irakurri, eta jabetu zen altxorraz, lekukotzaren garrantziaz.

 MIEL A. ELUSTONDO  ZALDI ERO / ARGIA CC BY-SA

Aitaren memorien azterketaren emaitza dugu zure artikulu mardula: *Gerra Zibila: Trauma, dolua eta memoria lekukotza autobiografikoetan. Juan Azkarate eta Luis Ariznabarreta milizianoak Ipar frontean.*

Sancho el Sabio Fundazioaren webgunean du irakurri nahi duenak. Pandemia garaian izan zen, 2020ko udaberrian. Gurasoen etxeko ganbara garbitzen ari ginela, aitaren eskuizkribuak aurkitu genituen, 1936ko gerrari buruzkoak. Aita zen Luis Ariznabarreta Zubiaurre, Sorluzeko Espilla baserrikoa. Gerran, Amuategi batailoian ibili zen, miliziano, hamabost hilabetez. Aitaren paperetan, berriz, orduko lekukotza zuzena dugu: frontean ibili zen garaiko kronologia,

presoaldia, soldadu agiriak, argazkiak, hildako sorluzetarren zerrenda, soldadu kideen izenak, bertsoak... eta bixikeria bi: *Un chino en el ejército vasco*, eta *Rusos y chinos en el ejército vasco* izeneko bi testu.

Aita zenak Espainiako gerrako konturik kontaktzen zuen?

Bai, beti! Garai batean, asteburuetan-eta, gure etxean bazkariak luzatu egiten ziren, gurasoek mahaian jarri eta bertan egotera behartzen gintuzten, tertulian. Tarte haietan kontaktzen zituena gure aitak gerrako ibilerak, anekdotak-eta. Gerraren gordintasunik eta minik ez zigun zuzenean aipatzen, baina bai zeharka edo lerroartean... Gauza asko isildu zituen, baina esango nuke

isiltasun horren bidez bere mina transmititu zigula.

Aitak gerraren gordinkeria handienak ez aipatuta ere, berak bizi izandako mina barneratu zenuten?

Nik uste dut baietz. Esate baterako: gure aita 2003an hil zen, azkeneko urtea gaxorik igaro eta gero, 88 urte zituela, bakean. Memoria historikoaren gaia mende berriarekin hasi zen indarrez lantzen, desobiratzeak-eta. Horien berri izaten nuenean, malkoak etortzen zitzaizkidan, hunkitu egiten nintzen. "Aitaren heriotza eta dolua izango dira!", pentsatzen nuen orduan, baina orain badakit ezetz, ez zela dolua, berak transmititu zigun gerraren mina baizik. Etxean presente izan da beti gerra, eta gerraren mina.



Bego Ariznabarreta Orbea

SORALUZE, 1953



Gizarte eta Kultura Antropologian lizentziaduna, eta Magisteritzan diplomaturia, EHUn beti. Irakasle izana lanbidez, antropologiak jarri zuen idaztera. *Antropologo natiboaren inguruko hausnarketa zenbait* artikulua publikatu zuen 2005ean *Sancho el Sabio* aldizkarian Aitzpea Leizaola irakasleak gidaturik, eta oraindik oraingoa du memoria historikoaz ari zaiguna: *1936ko Gerra Zibila: trauma, dolua eta memoria lekukotza autobiografikoetan*. *Juan Azkarate eta Luis Ariznabarreta milizianoak Ipar frontean* (sarean irakurgai). Inoiz José Migel Barandiarani irakasle aleman batek esan ziona berritu du Bego Ariznabarreta Orbeak bere baitarik: “Sakon ezazu zeure herrian, eta unibertsaletara iritsiko zara, guztion iturria bat bera baita”.

Aita hil eta gero aurkitutako paperetan, berriz, orduan eta presenteko gerra!

Baina paper haiek irakurri, eta gerra zer izan zen ezagutu nuen arte, ez nintzen ohartu zein traumatikoa zen gerra, Espainiako Gerra Zibilean gertatu zena. Aitarena irakurri ondoren, Gasteizko Sancho el Sabio Fundazioaren bibliotekara joan eta asko irakurri dut gerraz, eta etxeko liburutegian apal bat osoa dut gerrako liburu eta informazioz bete. Orain, berriz, Gazan-eta, gerra errepikatu egiten dela ikusten dut, eta gerrak gelditu egin behar direla, ez dakit nola, baina gelditu egin behar direla. Nik, esate baterako, biolentziaren eta gerraren kontra idatzi dut nire artikulua.

Artikuluaren irakurri dizut amak ere gorriak ikusi zituela. Hura Rosario Orbea Gallastegi zen.

Gerrako umea izan zen, eta gure etxeko bazkalondo haietan bereak kontatzen zituen, ez zen isilik egoten. Gehiago esango dizut: grabazioa ere egin nion. Zoragarria da, bere bizitzaz ari da eta, besteak beste, gerraz. Gure ama zena oso bizia zen, eta alai, eta gerrako hainbat abentura kontatzen zituen, gordinak denak. Hiru ahizpa ziren, eta Saint-Etiennen (Frantzia) egon ziren, euren amarekin joanda. Amaz ere idatziko dut, berak kontatutakoa aztertu, eta gure ondorengoen zatidatza utzi.

Etxe askotan ez da gerra kontatu. Zuenean, bai aitak, bai amak, biek kontatu zuten...

Horrek ez du esan nahi dena kontatu zutenik. Nik ez nekien aitak armak hartu zituela. Inozo samarra izan naiz horretan, gerra horixe da-eta: gerra. Gure aitak-eta erresistentzia eta defentsa egin zuten. Alde batekoek eraso egin zuten, eta beste aldekoek, berriz, erresistentzia eta defentsa. Ñabardura egin behar da. Baina bi aldeek ibili zituzten armak, jakina. Hala ere, aitak ez zigun arma konturik kontatzen. Hainbat istorio grabatu nizkion aitari, baina gerrakorik ez. Ganbaran haren paperak aurkitu genituenean, zeharo interesatu nintzen.

Antropologia ikasketak eginak dituzu, besteak beste. Nola asmatu duzu zeure aitaz idazten, hain pertsona hurrekoaz?

Garai batean, ikertzaileek esaten zuten autorearen eta ikergaiaren artean hurbiltasun afektibo handia denean ezin dela objektibotasunez idatzi. Oraingo antropologian, aldiz, uste da hurbiltasun hori aberasgarria izan daitekeela, ohiko ikerketa batek kontuan hartzen ez dituen elementu asko sartzen direlako jokoan: interesa, emozioak, ñabardurak...



Nik uste kontatzeak gerrako trauma gainditzen lagundu ziola aitari, neurri batean behintzat. Eta, bestalde, idazteak ere asko lagundu zion”

Bestalde, objektibotasuna dela-eta, gaur egun bada-kigu objektibotasuna ez dela errealitate aldezin, gauza finko bat. Objektibotasuna egilearen asmoen bidea da, besterik gabe. Kontua da hurbileko ikerketa egitea eta, aldi berean, distantzia analitiko mantentzea.

Objektibotasuna subjektibotasunetik...

Hortxe sartzen da nire subjektibotasuna, eta gure aitaren subjektibotasuna. Inportanteena, hala ere, gauzak zintzotasunez aztertzea da. Nik nire laneko lehen lerrotik esaten dut nor naizen, noren alaba, zein ditudan ikasketak, zein diren nire galderak eta helburuak. Inork nire lana irakurtzen badu, lehen momentutik jakingo du nor ari den idazten, eta zergatik eta zertarako. Inor engainatu gabe ari naiz.

Aitari grabazioa egin zeniola esan duzu, nahiz eta ez zinen gerraz galdetzeraz heldu. Haatik, grabazioa ere egin zioten.

Franco hil eta gero, 80ko hamarkadaren hasieran egin zion Carlos Blanco Olaetxea taldeak. Eusko Jaurlearitzaren Gerra Zibileko gidan aurkitu nuen aitaren grabazioaren aipamena. Ezusteko galanta izan nuen, sorpresa pozgarria eta ederra. 90 minutu irauten du, eta Euskadiko Artxibo Historikoan dago. Gure aitak koarderno batean idatzi zuenez, harrituta zegoen, esaten zuen ez zuela sekula uste izango egun hura iritsiko zenik, hainbat urte pasatu eta gero inor gerraz galdezka grabatzeraz etorriko zitzaionik. Nik uste horrek gerrako



trauma gainditzen lagundu ziola, neurri batean behintzat. Eta, bestalde, idazteak ere asko lagundu zion. Baita musikak ere. Gitarra, kantua, bertsoak sortzea... oso terapeutikoa gertatu zitzaion.

Idaztea dela-eta, idaztearen balio terapeutikoaz hitz egiten da gaur egun.

Horixe esaten dute, bai. Nik gure aita beti idazten ezagutu nuen. Txikitan mendira joaten ginenean ere, aitak hartu paper-mutur bat, edo txokolate tabletaren bilgarria, eta zer edo zer idatziko zuen. Batzuetan, gorde egingo zituen paper-txo haiek; beste batzuetan, bota. Ez dakit. Baina bai uste dut idaztea oso terapeutikoa izan zitzaiola, taldean ibiltzea bezain terapeutikoa, zeren abesbatza batean kantatzen zuen –horrela euskaraz kantatzen zuen–, eta gudari edota milizianoz osatutako tertulia batean parte hartzen zuen, gerraz eta politikaz-eta hitz egiteko.

Lagunartean bildu, eta gerraz hitz egiten zuten. Etxekoei ere hainbat kontu eta istorio kontatu zizkizuen garai bateko bazkalondoetan. Baina gerrari buruz berariaz ezer grabatzera ez zinela heldu esan diguzu.

Egia da. Aita hil zen urtean bukatu nintuen Antropologia ikasketak, eta esaten nion neure buruari: “Hau da marka!, ez diot aitari gerraz grabatu!”. Pena handi horixe neukan. Eta penarekin batera, galderak etorri zitzaizkidan: “Aitak inor hil zuen?”. Badakit gerra horixe dela, batetik bestea hiltzea, baina gure aitak inor hiltzea... Nik ez nion gerraz zuzenean galdetu, ordea, eta berak ere ez zuen inor hiltzeaz hitz egin eta, beraz, zalantza horrekin geratu nintzen. Grabazioan, berriz, garbi esaten du tiroak bota zituela eta, hori ez ezik, tarte batean dio Lemoatxen sekulako mordoia hil zutela. “*Hicimos mucha mortandad*”.



XANGAI-RI EUSKARAZ

“Aitak idatzi zuen *Xangai* mari-nela zela, errepublikanoentzat hornigaiak zekartzan ontzi ingeles batean heldu zela Xixonera, eta euren brigadara sartu zela. Chang Aking izena du agiri militarretan, eta aitak-eta Txen, Txan edo *Xangai* deitzen zioten. Brigada hura euskaldunetz osatuta zegoenez, euskaraz hitz egiten zioten, *Xangai*-rentzat Aitorren hizkuntza edo Cervantesena gauza bera zirelakoan, gure aitak idatzi zuenez”.

EGIA

“Aita kontalari handia zen, herrian ere [Soraluze] kontaktatu zituen gerrakoak, baina gezurrak edo zirela uste zuten. Nire ahizpa batek ere horixe esaten zuen: ‘Kontu asko berak asmatuak izango dira!’. Baina ez! Ohartu naiz gure aitak kontaktatu zuena guztiz bat datorrela idatzitako historia ofizialarekin, okerrik ez dago –ohiko nahasteren bat izan ezik–, eta gezurrik ere ez”.

Azken hitza EMAKUMEA

“Denbora askoan ez dut elkarriketarik emateko interesik izan, nahiago izan dut ez agertu, baina, bestalde, ohartu naiz emakume gutxi egiten ditugula horrelako lanak, Gerra Zibilari buruzkoak-eta. Azkenean, iruditu zait emakumeok ere agertu egin behar dugula, egiten ditugun ikerketak erakutsi egin behar ditugula. Garrantzizkoa da emakumeok geure buruak erakustea”.

Hilkintza handia, alegia.


Bai, baina, segidan: "...pero con nosotros hicieron mucho más". Harritu egin nintzen, zeren hor bada autore bat, [Ronald] Fraser historialaria, *Recuérdalo tú, recuérdalo a otros* liburua idatzi zuena. 300 soldadu baino gehiago elkarrizketatu zituen, eta 235 sartu zituen liburuan. Fraserrek esaten duenez, inork inoiz ez zion esan inor hil zuenik. Harrigarria Fraserrek hori esanda, inork inor hil zuela ez esatea eta gure aitak, aldiz, egingako grabazioan garbi onartzea jendea hiltzen parte hartu zuela.

Zure artikulua izenburuak bi izen dakartzkigu: Juan Azkarate, eta Luis Ariznabarreta. Luis, zuen aita. Eta Azkarate?

Aitaren laguna. Soralezekoak ziren biak, adin berekoak. Gerra sartu zenean, hogeitau urte zituzten. Boluntario joan ziren biak, miliziano, Amuategi batailoian. Juan Azkarateri buruz ez dakigu askorik, gure aitak idatzi zuenaz aparte. Juanen gurasoak ziren Eulogio Azkarate Bustindui eta Victoriana Treviño Azkarate. Bi seme izan zituzten: Alberto, eta Juan. Gure aita eta Juan Azkarate elkarrekin ibili ziren gerrako frontean, eta Etxanon zeudela, bata



Bego Ariznabarretaren gurasoak, ezkondu ziren egunean.



bestearen ondoan, obus batek Juan jo eta burua txikitu zion. Halaxe kontatzen du gure aitak. Zornotzan lurperatu behar izan zuten, eta Aranzadik [Zientzia Elkarte] 2024an Etxanon desobiratzeak egin zituenean, hantxe zeuden 1937ko maiatzaren 16an hil zirenak. Besteak beste, Juanen gorpuzkiak, nahiz eta oraindik gorpuzki horiek identifikatu egin behar diren...

Eta Juanen [Azkarate] familia? Gurasoak eta anaia, alegia.

Juan 1937an hil zuten, frontearen. Aita, Eulogio, 1938an hil zen, preso. Egoera horretan, eta herrian frankistek eragin zuten giroaren ondorioz, Victorianak kalera irteteari utzi egin zion. Kontua da Santa Agedara [Arrasateko psikiatrikoa] eraman zituztela ama-emeak. Amak zituen 60 urte, 23 semeak. Bertan bizi izan ziren hil arte; Alberto, esaterako, 1987an hil zen. Biak Santa Agedan bizi izan ziren, baina bananduta, bi toki ezberdinetan, gizezkoak alde batean eta emakumeak beste batean bizi zirenetan. Gerrak sekulako hondamendia ekarri zion Eulogio eta Victorianaren familiari. Euren historia gogor eta latza kontatuko zuenik ere ez da egon.

Izugarria!... Aitarena eta Juanena idatzirik ere, beste bi lan ere idatzi nahi dituzu.

Bai. Alde batetik, txinatarrarena. Aitak aipatzen du Xixonen (Asturias, Espai-

nia) zeudela, txinatar bat eraman zutela euren eskudrara. Historia handia du txinatar horrek. *Xangai* deitzen zioten, hangoa zen eta. Aitak dio *Xangai*-k eurekin batera egin zuela borroka, eta euren zori bera izan zuela, edo zori okerragoa, zeren gure aita lau urte egon zen preso, eta *Xangai*, aldiz, sei! *Xangai*-ren historia aztertu nuen, haren pausoak segitu ditut, eta osorik idatzi nahi dut haren historia. Horrekin batera, edo beste alde batetik, amarena idatziko dut, amaren bidez, emakumea eta [Espainiako] Gerra Zibila aztertzeko. Eta beste gauza bat, oso inportantea...

Zeuk esan.

Ez zait *bando* [alderdi] hitza gustatzen. Ni miliziano baten alaba naiz, baina nire asmoa ez da izan bando batekoen edo bestekoen gogoia erakustea, gerrak ekartzen duen sufrimendua azalera-tzea, sortzen diren traumak. Ama zenak ere esaten zigun: "Ez nuke nahi zuek gerra bat bizitzerik". Aitak ezker-eskuin ikusi zituen hildakoak, berak ere hil zituen, eta nik, berriz, gerren kontra idatzi nahi izan dut, sekulako sufrimendua eta traumak sortzen dituzte eta. Uste dugu trauma horiek atzean utzi ditugula, ahaztuta gelditu direla, baina hortxe daude, gure gurasoek bizitako gerraren traumak eta sintomak ditugu oraindik. ●

Koop mitxelena
MEKANIZATUAK

Neurri handiko piezen mekanizazioan espezialistak

LRQA CERTIFIED AS 9100

LRQA CERTIFIED ISO 9001

Eziago industrialdea 21, HERNANI

943 55 25 12 - 16

info@talleresmitxelena.eus

www.talleresmitxelena.eus



Agur esaten ikastea



DAVID BOU
DIRECTA-KO KAZETARIA

Zerbaiti edo norbaiti agur esatea abandonuarekin, amaierarekin eta, azken batean, dolu-prozesuarekin lotutako ekintza izan ohi da. Seguru noizbait esango zenutela –edo norbaiti entzungo zeniotela– “ez zaizkit agurrak gustatzen” esaldi tipiko eta topikoa. Eta ez zaituztet engainatuko, agurrek ni ere ez naute inoiz liluratu.

Uste dut hori gertatu dela, besteak beste, historikoki gizarte gisa izan dugun ezintasunagatik tristura sor diezaguketen egoerei aurre egiteko. Sentimendu jakin batzuk, nostalgia, adibidez, zerbait negatibo gisa identifikatzen ditugu, eta, horregatik, horiek saihesten saiatzen gara. Nahiz eta askotan min handiagoa ematen duen zerbaiti eusteak, joaten uztea hobe dela onartzeak baino.

Txikitari nire amaren familiaren herrira oporraldia pasatzera joaten nintzenez, itzuleran isuriko nituen malakoak madarikatzen joaten nintzen. Nire hiritik urrun zegoen pertsona batekin maitemindu nintzenezan sufritu egiten nuen, pentsatzen ziurrenik gure bideak berriro bananduko zirela. Nire aitona 100 urtera iritsi zenean, sasoi ederrean, errukia sentitzen nuen haren heriotza saihestezinak eragingo zuen estualdi txarragatik. Normalizatuta neukan beldur horiekin bizitzea.

Hiru gauzak gertatu ziren, eta onartzea ez zen izan oztoporik gabeko prozesua. Baina horrelako eta antzeko esperientzietatik zerbait ikasi dut: agurrak eraldaketarako aukera erradikalak izan daitezke. Batez ere, horiek gauzatzeko

Gaurkotasuneko informazioarekin eta esfera digitalarekin etengabe konektatuta egoteagatik nekea pilatu zait eta motibazioa murriztu

unea aukeratzeko pribilegioa duzenean, eta denbora aurkitzen duzenean horiek asumitzeko eta askotan dakarten ziurgabetasuna zaintzeko.

Horixe izan da nire zorzea azken hilabeteetan. *Directa*-ko egunerokoan hamalau urtez inplikaturatuta egon ondoren, hilaren amaieran erredakzioako ordenagailua itzaliko dut, irailen beste lankide batek piztu dezan. Gaurkotasuneko informazioarekin eta esfera digitalarekin etengabe konektatuta egoteagatik nekea pilatu zait eta motibazioa murriztu; atsedean hartzeko gogoia piztu dit. Atsedean horrek ahalbidetuko dit aukera pertsonal eta profesional berriei buruz pentsatzea.

Era berean, ARGIAko artikulua hau izango da 2017ko abenduan ireki zen etapako azkena. Ordutik hamarnaka tes-

tu argitaratu ditut orri estimatu hauetan. Horietan guztietan saiatu naiz nire ikuspegia ematen Herrialde Katalanetan azken urteetan jazotako gertakarietaz. Eta, oraino bezala, noiz edo noiz atrebentzia izan dut gogoeta pertsonalak idazteko; espero dut interesgarri iruditzen izana.

Azken artikuluan azaldu nizuen Suisz erbesteratutako lagun maite bat tren-geltoki bateko nasan agurtzearen gogortasuna. Zorionez bezain ustekabez, gaur lerro hauek idazten ari naiz Tsunami Democratic-en auzia artxibatu dutela ezagutu ondoren, eta jakinda laster berriro besarkatu ahal izango dudala gure lurraldean. Berak [Jesús Rodríguez] hartuko dit lekukoa artikulua hauetan, eta zirkulu bat itxiko da horrela: duela hamalau urte kazetaritzaren ateak ireki zizkidan pertsona bera izango da hemendik aurrera zuentzat idatziko duena.

Agian besterik gabe ikasi eta onartu behar dugu “kaixo” batek beti ekarriko duela “agur” bat, eta despedida batzuek ez dutela zertan behin betikoak izan, behar den unean egiten baldin badakigu. Orain nahiago dut “laster arte” esan, edo, are hobeto, “ez adiorik!” oihukatu, ikasitako guztiak aurreikus ezin daitekeen helbururaino lagunduko didalako ziurtasunez eta harrotasunez. Mila esker bihotzez ARGIAri, nigan konfiantza izateagatik eta espazio hau emateagatik. Eskerrik asko zuei guztiei, zuen lagun-tzarekin hau bezalako hedabideak posible egiten dituzuenoi. ●


Defendatu behar duguna



KATIXA
DOLHARE-ZALDUNBIDE
LITERATUR ZALEA

Ikasle batek erran zidan, behin, testu bat aztertzen ari ginela: “Pertsonaia eri da: geldi-geldia pentsaketa ari da bere buruan”. Bistan dena, erranaldi horrekin, gaizki adierazi zuen gogoan zuen iruzkina, erran nahi baitzuen pertsonaiaren ezontsa nabari zela haren hausnarketa etengabeetan. Halere, erranaldi horrek harrapatu ninduen, efektu izugarria egin zidan. Beharbada, bai, batzuek uste dute beti pentsatzen aritzea eritasuna dela? Anormaltasuna? Gaixotasun psikiatrikoa? Zoini hiltzen ote zaio pentsaketa, egunean zehar?

Berriz oroitu naiz erran hartaz azken aste hauetan, ikusiz bereziki gure herrikide anitzek bozkatu dutela eskuin muturraren alde, bai Europako hauteskundeetan, bai Frantziako Legebiltzarrekoetan. Nik anormaltzat dauzkadanak dira preseski beren burua aurkezten duten *Rassemblement National* (Batasun Nazionala, RN) alderdi horretakoak, bihozgabeko gezurtari lanjerosak, ziriak bezain alferrak direnak. Jordan Bardellak ez omen du mikorik egin Bruselan, Europako diputatu gisa. Ene boz eremuko hautagaiak ez du gorde, lurraldeko bost irrati libreek antolatu zuzeneko eztabaidan, uztailaren 3an, ez dituela ezagutzen azken urteetako lege garrantzitsuak, adibidez, Iparralde honetan hain beharrezkoa genuen bigarren etxebizitzaren fiskalitatea arautzen duena. Baina zer ari dira? Deus ere, haize hotza higitzen dute. Denbora guzia iragaten duten itxurakerien



DOM CAMPISTRON

bidez funtsik gabeko eta azaleko ideia sinpleak botatzen. Beldurgarriena da haien bozkatzaileek sinets dezaten burutik sanoak direnak haiek direla, eta ez besteak, ez dutenak ukatzen bizitzaren konplexutasuna eta pentsaketa konplexuaren beharra.

Duela 50 bat urte, Edgar Morin filosofoak teorizatu zuen *pentsaketa konplexua* kontzeptua *La méthode* obra erraldoian. Erakutsi du mundua osatua dela sistema askoz, jakitate alor guztiak elkarreraginean jarriz ere ez daitekeela ezagutza sistema bakunera heldu bizia eta gizakia ulertzeko. Garai horretan sortu zuen ere *polisistemaren* kontzeptua Itamar Even-Zoharrek. Hainbesteko abstrakzioaraino joan gabe ere, norberak esperimenta dezake, bere bizitzan, zoin anitza den natura, zoin konplexuak eta kontraesankorrak, giza harremanak. Bai izadia, bai jendartea mugarik

gabeko itsasoak dira, mila galdera inarrosatzaileraren iturriak.

Zergatik, bada, hain nabarmen den konstatazio horrengatik, herrikide batzuek konfiantza erakusten diete txotxongilo haiei? Haserre eta aspertuak direlako gainbehera sozioekonomikoaz? Ala ez dutelako pentsatu nahi? Kognizio sozialean, jujamendu heuristikoa deitzen dira laburpen eta sinplifikazio kognitiboak, konplexutasuna saihesten dutenak. Gezur sinplifikatzaile eta garbitzaileak jasotzeak izpiritua lasaitzen ote diete, eskuin muturreko jarraitzaileei? Bizipoza eragiten ote diete? Nik ez ditut uros ikusten, hasteko. Izaki etsitu, auher, berekoitzat dauzkat: hamaika hertsadurez nahitara leuntzen eta mugatzen dute beren bizitzeko gogoia, ez badute gorrotoa zabaltzen.

Zoriontsuagoak zaizkit, berriz, munduari eta gizarteari zentzu bat eskaintzeko lan egiten dutenak, zailtasunak zailtasun, idealak ideal, onartzen dutelako konplexutasunaren bidez baizik ez direla gauzak konprenitzen eta preztatzen ahal.

Hain zuzen ere, arrunt apropos, ekainaren 26ko *Le 1* astekariak erakarri ditu Robert Desnos poetak 1936an idatzi zituen neurtitz batzuk, fronte popularra altxatu zelarik faxismoaren kontra: “Kantatzen dut gau honetan ez borrokatu behar dugun hori / Baina defendatu behar duguna. / Bizitzaren plazerak”. ●



IÑAKI BARCENA
EKOLOGISTAK
MARTXAN ETA
EKOPOL-EKO KIDEA

Ekofaxismoa al datorkigu?

Kapitalismoak sortutako krisi ekosoziala ondoez globala ari da eragiten planeta osoan. Baliabide material eta energetikoen "gailurrek", hazkunderako eta metaketarako mugak ezarriz, natura eta gizartearen arteko desorekak ekartzen dituzte. Estraktibismoaren gurpil eroak, klima aldaketak, eta bioaniztasunaren galerak ere bai. Zaintza eta elikaduraren krisiak, demokraziaren ahultzea, arrazismoa, xenofobia, nekropolitika eta gerrak panoramika kezagarri horren parte dira. Zibilizazio krisi konplexu eta anitza.

Elite kapitalisten "bizimodu inperialak" gero eta jende gehiago miseriara kondentzen duen bitartean, populismo eskuindarra gora doa mundu osoan.

Talde ultraeskuindarrek begirada desbideratu nahi dute bizitzen ari garen desjabetze eta kanporatze prozesutik. Tentsio, indarkeria, beldur eta histeria-giroan bakarrik ezkuta daiteke prozesu hori, Yayo Herrerok dioenez.

Horrela, diskurtso ekologistaren berregarpena sumatzen dugu populismo autoritario berrietan. Etnoekologismoa zurientzat eta europarrentzat. Gai ekologikoen monopolio "komunista" desegin, eta arrazakeria eta xenofobia nazioaren eskubideen defentsan erabili.

Zer egin? Historiatik ikasi eta azterketa egokia egin. Nazismo alemaniarrean eta falange espainiarrean adibide historikoak ditugu, ekologia eta eskuin mutu-

rraren erlazio horiek ulertu ahal izateko. Aldiz, *ekofaxismoa* ez da kategoria edo kontzeptu lagungarria, nire aburuz. Faxismo berriak ari dira agertzen nonahi. *Lurralde-faxismoa* (Trump, Bolsonaro, Salvini...) barneko eta kanpoko mugak ezartzen dituen, soberan dauden herri-tarren artean daudenak bereizteko. Edo Andreas Malm eta Zetkin Collective-ren *faxismo fosila*. Euren ustez, teknologia fosilak arrazakeriaz josita jaito ziren.

Nago, Emilio Gentile-k dioen bezala, "faxismoaren itzuleraz" edo "faxismo eternalaz" hitz egiteak ez duela zentzu historikorik. Faxismoa benetan izan zenari buruzko desinformazioa areagotzen du eta oraina ulertzea eragozten digu.

Autore batzuek "eskuin muturraren ekologismoa" nahiago dute. Politikoki eta ideologikoki egokiagoa iruditzen zait, non faxismoaren, kontserbadurismoaren eta nazional-populismoaren nahasketa topatzen dugun. Eta bertan, naturalismoa, espiritualtasuna, mistizismoa, autoritatea, autarkia, nostalgia eta manikeismoa, gailu heuristiko bezala.

Europako ultraeskuindarrek jarrera kontraesankorrak dituzte. Negazionismotik ekologismo pragmatikora, beti arrazoi arrazista eta chauvinistak erabiliz. Errua... etorkinek!

Arundhati Roy-k dioenez, "inoiz ez sinplifikatu konplikatua dena edo korapilatu sinplea dena". ●

Euskaldunak



LEIRE NARBAIZA
IRAKASLEA

Eusko Jaurlaritza berriko bozeramaile Maria Ubarretxenak lehenengo elkarrizketa Euskadi Irratiari eman zion. Solasaldian asmoez jardun zuen, kontu orokorrak adierazi zituen, ezinbestean, gobernua martxan jarri berri zegoelako. Adeitsua izan zen tonua kazetari eta eledunaren artean.

Halere, kazetariaren galdera konkretu bat erantzuteko tonua zorroztu egin zuen Ubarretxenak. Atsegin baina gogortxo, errieta puntu bat ere sumatzen zitzaion ahotsean. Sailburuen artean euskaldun oso zenbat ziren itaundu zion irratikoak, ea zenbat izango ziren gai

Euskadi Irratian elkarrizketa egiteko.

Ahor, bitan botatako erantzuna: "Denak dira euskaldunak, baina ez denak euskal hiztunak". Jarrera baikorraz eta euskara bultzatzeaz berba egin bazuen ere, ez zion erantzun esatariari.

Andre agurgarri horrek ez ote daki euskalduna dela euskara duena/dakiena? Edonongo pertsona euskalduna izan litekeela euskal herritar izan barik, sekula Euskal Herria zapaldu barik?

Euskaldun izatea ez da ohorea, ez dirrela esatea ere ez da mespretxua. Kargu publikoari eska lekiokoen gutxienekoa ere izan liteke, esanahia bihurritzeke. ●

Zenbateraino izan behar dira txikiak nekazari txikiak?



GORKA MENENDEZ
MILITANTEA, NEKAZARIA
ETA BOTANIKOA

Gaur egungo ezker mugimendua-ren zati handi batek, intuitiboki bada ere, eskala txikiko nekazaritza aldarrikatzen du zalantza askorik izan gabe. Hala ere, txikitutasunaren aldarrikapen horrek baditu bere kontraesanak: tamaina txikiko ustiategi batek, definizioz, ezingo du elikagai askorik ekoiztu. Eta hori garrantzitsua da? Bada, zentzu batean, bai. Jendarte batek izan dezakeen konplexutasun maila ekoizten dituen soberakinen arabera izango da. Esate baterako, ekoizle bakar batek mila pertsonarentzat adina elikagai sor baditzake, esan nahi du sistema horretan 1.000 biztanletik bat bakarrik arduratu beharko dela elikagaiak ekoizteaz.

Gainerakoen bizitza-denbora sozialki beharrezkoak diren bestelako jarduerak egiteko aske geratuko da: erizainak, musikariak, irakasleak, garbitzaileak, ingeniariak, artisauak... Lanaren banaketa sozialerako eskala 1/1.000 proportzioan eman ahalko litzateke kasu horretan. Elikagaien ekoizpenean soberakinik ez balego, ordea, jendarteko partaide guztiek eskaini beharko liokete elikagaien ekoizpenari tarte bat. Kon-

Ekoizpena interes kolektiboen arabera antolatuko balitz, noraino eramango genituzke ustiategiaren tamaina eta ekoizpen gaitasuna?

plexutasun maila oso baxuko jendarte izango litzateke.

Kontua da ustiategiaren tamainak lotura estua duela sor dezakeen soberakin mailarekin: zenbat eta handiago izan, hainbat gehiago teknifikatu eta mekanizatu daiteke. Eta horrek posible egiten du pertsonako ekoizten den elikagai kantitatea handitzea. Hala ere, ekoizpen kuantitatiboaren handitze hori ez da debalde gertatzen. Teknifikazioak gora egin ahala, ekoizleak zuzenean kontrola-

tzen ez dituen prozesuekiko dependentsia handituz joango da: autonomia galdu eta bere alienazio eta mendekotasun maila handituko dira. Era berean, eskala handitzearekin ekoizpen prozesuak sortzen dituen kalte ekologikoak handitzen dira, paisaia eta ekosistemen eraldaketa ere eskala handiagoan egiten delako.

Gaur egun, kapitalismoan, ustiategiaren tamaina merkatuak ezartzen du: eskala eta teknifikazio maila bategatik behera elikagaien ekoizpena ez da errentagarria eta inork ez du profesionalki eskala horretan ekoizten. Baina horrela ez balitz, eta ekoizpena interes kolektiboen arabera antolatuko balitz, noraino eramango genituzke ustiategiaren tamaina eta ekoizpen gaitasuna? Zein puntutan ebatziko genuke eskala-teknifikazio-produktibitate-ingurugiro eragina-autonomia faktoreen arteko tentsioa?

Nire ustez, bitarteko kolektibizazioa eta agroekologiaren printzipioak gidalerrotzat hartuta, ekoizpen eskalaren handitzea entsegu esparru izan beharko litzateke, plano teorikoan zein praktikoan. ●



aleka

**EUSKAL HERRIKO
HAZI EKOLOGIKOAK**

Leunda Berri Baserria
Beizama, Gipuzkoa



**EGIN ZURE
HAZI ESKAERA!**

www.aleka.eus

- . BASERRITARRAK SAREAN
- . AGROEKOLOGIA
- . BIOANIZTASUNA
- . BERTAKO EKOIZPENA



Biolur
Gipuzkoa



**LURRA
HERRIARI
DEKA**

Prezioa **22 €**

Bidalketa gastuak **5€**.
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.
BIZUM bidez ordaindu daitezke.

ARGIA Azoka

azoka.argia.eus

(+34) **943 37 15 45**

Mapen lorratza herri baten historian

EUSKAL HERRIKO KARTOGRAFIA HISTORIKOA

Kartografiak herri edo lurralde baten ezaugarriak baino askoz gauza gehiago adierazten dituela jakina da. Mapak eskuan konkistatu dira kontinenteak eta eraiki dira inperioak historian zehar, eta eskoadra zein kartaboiez definitu dira identitate kultural eta politikoak. Euskal Herria bezalako "historiarik gabeko" herriak atzerriko begiekin marraztu izan dira sarritan, baina euskaldunak, grafikoki irudikaturiko subjektu izaten jarraitu dute hala ere. *Imago Vasconiae* atlasak arrasto horri jarraitzeko aukera ematen digu orain.

 URKO APAOLAZA AVILA

 IMAGO VASCONIAE / TXALAPARTA





Claudio Ptolomeo astronomo greziarrak mapa oso zehatzak egiteko oinarriak jarri zituen II. mendean. Geroztik iturri baliotsua izan da, 1478ko honako mapa hau egiteko kasu. Bertan, egile klasikoek egindako gens edo "tribuen" sailkapen zabaldua ageri da (baskoiak, barduliarrak, karistiarak, autrigoiak...), baita hainbat toponimo ezagun ere.

1 050. urte inguruan Europako Mendien altzoan bizi zen monje beneditar batek margo gorri, hori, urdin xkak erabilia, zirkulu obalatu bat trazatu zuen pergaminotan, eta pixkanaka, inguratzen zuen espazioaren eta bizi zuen denboraren irudia marrazten hasi zen pazientzia osoz ahalik eta zehaztasun gehienez, kristau erlijioako Apokalipsia ere azaldu nahian. Monje hark, Liébenako Beatoak, ezagutzen dugun mapamundi zaharrenetako bat egin zuen, eta Europako kontinentearen ertz batean, Pirinioen iparraldean, honako hitza idatzi zuen: *UUasconia*.

Landetan, Aturri ibaiaren ondoan dagoen antzinako Gaskoniako Saint Serverreko monasterioko eskuizkribu batean gorde da mapa hori, eta material kartografiko batean Euskal Herria kokatzen den lurraldearen erreferentzia zaharrenetako dugu seguruenik. Beatoak itsasoz inguratuta irudikatu zituen kontinente guztiak duela mila urte, eta eguzkia eta ilargia haien inguruan, Lurra laua balitz bezala. Mapek norbere errealitatea islatzeko balio izan baitute mendeak joan mendeak etorri, edo errealitatea norbere ideietara ekartzeko.

Atlasari garrantzia ez dio ematen biltzen duen zorroak, baizik eta bere edukiak eta intentzionalitateak: euskal lurraldea globaltasunean hartuko zuen obra baten falta sumatzen zen

Saint Serverreko mapamundia da *Imago Vasconiae. Euskal Herria: kartografia historikoaren atlas* (Txalaparta, 2024) obra aurkeztu berrian ageri zaigun bigarren mapa, lehenengoa Abauntzeko harriarena da, milaka urte batzuk lehenago egina (ikus 27. orrialdeko koadroa). Bilduma hori, herri honen historiak zuen hutsune handi bat betetzeko asmoz osatu dute Jose Mari Esparza idazleak eta Ramón Oleaga ikerlariak.

Gaian adituak biak hala biak, esperientzia luzeak mapagintzaren ikerkuntza arloan, eta urte eta ordu askotako lana da honako atlasa.

“Lehenengo hautaketan nola edo hala gure lurraldea islatzen duten milaka adibide atzeman genituen, eskala handiagan edo txikiagan”, azaldu du Oleagak bildumaren aurkezpenean. Horretarako herrialde ugaritako liburutegi eta museoetako katalogoak hustu dituzte, baita erakunde espezializatu etako funtsak ere, hala nola Kataluniako Institutu Kartografikoarena edo Espainiako Institutu Geografiko Nazionalarena. Hurbilketa “trauskil” horretatik 800 mapako corpusa osatu zuten eta atlaserako 300 pasatxo hautatu dituzte, “gure ustez, historiaren joanean gure herriak izan duen irudikapenaren berri ematen dute”, dio ikerlariak.

Eraitza ia 450 orrialdeko koloretako edizio zaindu bat da, mapa bakoitzaren detaile ñimiñoena ez galtzeko, azalpenak euskaraz, frantsesez, gaztelaniaz eta ingelesez dituela. Txalaparta argitaletxearen eskutik argitaratu dute, eta Laboral Kutxaren finantzazioari esker.

Baina atlasari garrantzia ez dio ematen biltzen duen zorroak, baizik eta bere



Abauntzeko mapa historiaurreko gizakiak grabatu zuela uste dute adituek eta mendiak eta ibaiak daude irudikatuta, animaliekin batera.

edukiak eta intentzionalitateak. Izan ere, lehendik Euskal Herriko mapen inguruko hainbat katalogo argitaratu izan bada ere, lurraldea globaltasunean hartuko zuen obra baten falta sumatzen zela diote egileek. Hala, Espartzaren aburuz atlasak lagunduko du "Baskoniak historian zehar izan duen bilakaera ulertzen". Kartografia sortu zenez geroztik, ez baita lurra neurtu eta azaltzeko zientzia hutsa izan, ekin-tza politikorako tresna bat baino.

MUNDU ESFERIKO BATEN PROIEKZIOAK

Zaila da esatea sorturiko lehen mapa zein izan daitekeen. Harrian zizelkatu edo marrazturiko hainbat eta hainbat adibidek adierazten dute Historiaren jada inguratzen zuten espazioaren jakitun zirela gizaki ehiztari eta biltzaileak. Ekialde Hurbilean, Antzinaroko zibilizazioetako hiriak irudikatzen muralak aurkitu ditzakegu, baita lehen *Imago Mundi* (Munduko Mapa) omen dena ere: K.a IV. mendeko ohol-txo babiloniarrek Lurraren ikuspegi mitologiko bat eskaintzen du. Txinan berriz, Qin dinastiaren aurretik data-turiko mapak azaldu dira indusketa arkeologikoetan.

Geroago, greziarrek eta erromatarrek teknika kartografikoak sofistikatu zituzten erabilera militarerako. Claudio Ptolomeo astronomo greziarrek II. mendean mapa osoak egiteko gidalerroak eta materialak eskaini zituen *Geografia* izeneko lanean, milaka toponimorekin. Hurrengo mendeetan Ptolomeo oinarriko erreferentzia izan zen mapagile askorentzat, eta adibidez, XV. mendean bere lana lehen aldiz inprimatu zutenean, iturri klasikoetako *gens* eta lekuen izenak ageri zaizkigu euskal lurraldeetan kokaturik.

Monasterioetako ikuspegi kosmologiko erlijiosoz egindako mapek agindu zuten Erdi Aroan –Liébenako Beatoaren tankerakoak–, baina XVI. mendetik aurrera, Europako potentzien espansionismoak ekarri zuen karta nautikoak edo *portulanoak* ugaritzea, estrategikoak eta funtsezkoak baitziren lurralde berrien konkistarako. Enperadoreek kartografo adituei agindu zieten euren inperioetako lur eta itsasoak zehazki definitzeko eta altxor sekretua bailiran gorde zituzten, soilik militarren eskuetan.

Arrazakeriak eta europar supremazismoak goia jo zuen garaian, XIX. mendean, menderakuntza eta esplo-



Abauntzeko kartografoak

Seguruenik munduko mapa zaharrenetako bat dugu *Abauntzeko Mapa* edo *Abauntzeko Harria* deiturikoa, nazioarteko zientzialariek ere aitortu dutenez. Izen bereko haitzuloan aurkitu zuten 1993 inguruan arkeologoek, Ultzama haranean, Arraitzen, eta urte luzetan aztertzen ibili eta gero, 2009an baieztatu zuten dokumentu kartografiko baten aurrean egon gaitezkeela.

Pilar Utrilla Zaragozako Unibertsitateko Historiaren katedradunak aztertu zuen harria, Carlos Moza doktorearekin batera. Utrilla 1976an hasi zen indusketa lanak egiten Abauntzeko haitzuloan, Joxe Migel Barandiaran antropologoak bultzatuta, eta handik urte batzuetara aurkitu zituzten grabatuak.

Kalkulatu dutenez, mapa duela 13.660 urte egin zuten historiaren gizakiek, Magdalenaldian, hogeitazentimetro luze baino txikiagoa den errekarri zapal batean. Ikerlarien arabera, haintzulotik gertu dagoen San Gregorioko haitzak dauka irudikatuta, baita bere oinean dagoen pasabidea eta Zaldatzain erreka edo handik oso urrutira ez dauden padura batzuk ere. Gainera, oreinen eta beste animalia batzuen irudiak ere ageri dira: "Bozeto bat izan daiteke, edo mapa soil bat. Edo hurrengo ehizaldirako plana irudikatu dezake, edo agian jadanik gertatu den zerbaiten kontakizuna da", diote ikerlanean. Auskalo.

Nolanahi ere, Abauntzeko maparen tesiari funtsa ematen dioten beste kasu batzuk ere badaude, inguruko paisaiaren irudikapenak direla uste baita. Romanelli azar-nategian esaterako, Italian, erreka baten meandroak identifikatu dituzte, baita Gargaseko haitzuloaren sabaian ere, Okzitanian, agian Garona ibaiarenak izan daitezkeenak.

Izan ere, duela milaka urte sua egin, ehizan aritu eta labarretan margolan ikusgarriak egiteko gai baziren, naturarekin sinbiosian bizi ziren gizaki haiek zergatik ez zuten inguruan zuten geografia ere marraztuko?

taziorako tresna indartsua bihurtu zen kartografia. Esploratzaile eskoziarrek kobre eta kobaltozko hobi erraldoiak zehaztu orduko, Belgikako Leopoldo II.ak Kongoren genozidioari ekin zion, adibidez. Afrikaren mapa geopolitikoak dituen lerro zuzenak kolonialismoaren orbain biziak baino ez dira. Eta eskala eurozentrikoz iritsi dira guganaino gainera, Gerardus Mercator flandriar geografokoak 1569an munduaren proiektzio amorfoa zabaldu zuenetik –Europa eta Ipar Amerika zabalagoak balira bezala erakusten ditu– irudi hori gailendu baita, gizon zuriak mundua dominatzen zuten garaia ikur.

“Garai hori ezin da eternizatu gutxiengo horrek sorturiko munduaren irudi geografikoa behin eta berriz erabiltza”, idatzi zuen Arno Peters zinemagile

Egile batzuek aspalditik eta konplexurik gabe aipatzen zituzten euskaldunak, baita “Euskal Herria” izena bera ere

eta historialariak. Esan eta egin: 1974an, duela mende erdi, bere ustez munduaren mapa justuagoa zena marraztu zuen. Petersen proiektzioan oinarrituriko Lurraren plano hamaika hizkuntzara itzuli da geroztik, baita euskarara ere.

HERRI BAT, HAMAIKA IZEN

Eta euskaldunok? Non eta nola kokatzen gara kartografiaren lubaketan? XVIII. mendetik aurrera, herri bat subjektu gisa aitortua edo gutxienez ikusia izateko, ezinbesteko zuen karta eta mapetan agertzea, erakusle hori gabe existitzen ez zen “historiarik gabeko” herria omen zelako.

Euskaldunak bizi ziren lurraldeari hamaika modutan deitu izan diote atzerriko begietatik iraganean. Estrabonek duela bi mila urte baino gehiago lehen deskribapena egin zuen: “...haratago Baskoien herria dago, eta hor Pompeyópolis esatea bezala dena...”, azaldu zuen. Mende parrastada bat geroago, 1571n Joanes Leizarragak Heuscal-herria hitza idatzi zuen lehen aldiz, Testamentu Berria itzultzerakoan.



1821ean, Franz August von Etzel militar prusiarrak Europaren *Völkerkarte* edo nazioen mapan adierazle etnolingustikoak ere erantsi zituen, eta argi eta garbi nabarmendu zuen “Basken” hitza euskal lurraldeetan, estatu-nazioen mugak erdibitu gabe. Euskararen hedapena Erribera baino pixka bat gorago ageri zaigu irudi horretan, oso eremu zabalean oraindik. XIX. mendean halako mapak ugaritu ziren, bidaiari eta hizkuntzalarien eskutik.



Ezker-eskuin eta goitik behera: 1905ean argitaraturiko "Euskaria" izena daraman mapa, Euskal Herriaren eremu osoa erakusten duen lehenengotakoa; XVII. mendean Blaeu familia herbehereetarrak egindako atlasaren detailea, karta nautikoei jarraiki; Iberiar Penintsulan inprimitutako lehen mapa modernoa Francesco Berlinghieri florentziarrak egin zuen, baina euskal lurraldeak ez zituen oso ongi kokatu, Bizkaia egungo Asturiasen jarri zuen.

Garai hartako beste "mapa batzuetan, Nafarroa edo *Navarra* ikusiko dugu lurralde osoari deitzeko", azaldu du Esparzak *Imago Vasconiae*-n, eta XIX. mendean aldiz, antropologo eta hizkuntzalarien bidaien ondorioz kartografia gero eta oparagoa argitaratu zen, baina "lurraldearen erdarazko izenak ugaritu ziren, bateratu ordez", dio idazle tafallarrak.

1801eko apirilaren amaieran Wilhem Humboldt intelektual eta diplomatiko prusiarrak Euskal Herrira egingo zuen bigarren bidaiari ekin zion Parisetik. Bi urte lehenago lurraldeotatik lehen aldiz igaro zenean txundituta geratu zen euskaldunen hizkuntza eta ohiturakin: "Frantziako eta Espainiako bi mugen barnean bizi arren, izaera eta

itxura guztiz berezia dute", idatzi zuen *Die Basken* liburuan. Baina antropologia konparatua aplikatzerakoan, Humboldt segituan jabetu zen euskaldunek bizi zuten egoeraz eta patuaz: "Zorigaitzoko herri honek bere izenaren batasuna ere galdu du", azaldu zuen, segidan baieztapen irmo bat egiteko: "Euskal Herri frantsesean, probintzia baskongadoetan eta Nafarroan barreiatutako herri osoa: euskaldunak [dira]".

Esparzari bezalaxe, atlasa testuinguru historikoz jantzi duen Joseba Agirreazkuenaga EHuko katedradunari ere esanguratsua egin zaio Humboldt azaldutako izenaren madarikazio hori, Sarako Joanes Etxeberri eta beste egile batzuek aspalditik eta konplexurik gabe aipatzen zituztelako euskaldunak, "baita

Euskal Herria izena bera ere, Zuberoatik Bizkairaino lurralde osoa adierazteko", dio katedradunak.

Agirreazkuenagaren esanetan "subjektu eta eragile horiek, euskaldunak, ez dira denboragabeak, ezta 'berezkoak' ere, eta hainbat mapetan grafikoki irudikatu den espazio batean bizi dira, eta kontakizun eta istorioen bidez bere buruaren jabe ageri zaizkigu. Hartara, gehiago edo gutxiago, beren buruaren kontzientzia, ipseitatea erakutsi dute". Beraz, existitzeko modu bat ere badira mapak: aita Manuel Larramendi XVIII. mendean euskararentzat hiztegia eta gramatika ontzen saiatu zen gisan, bidezkoa da kartografia bat osatzea, euskaldunok gure historiaren parte izan gaitzen.


IL REGNO DI NAVARRA
diviso da Giacomo Cantinelli Geog. del Seren. di Modena
nella sua Merindada e Barche
di Pamplona, di Sanguesa, d'Olite, di Tudela, e di Estella
che sono possedute dal Re di Spagna
e nella Bassa Navarra, o Merindada d'Ultrapuertos
che spetta al Re di Francia
dato in Luce da Gio. Gio. Rossi del. fu. Stampo
in Roma alla Piazza di S. Pietro del S.P.

Mare di Biscaia

OCEANO

Mare di Baiona

PARTE DELLA



Giacomo Cantinelli kartografoak makina bat mapa egin zituen Giovanni Giacomo de Rossi argitaratzailearekin batera. Orrialde honetan ageri dena 1690ean kaleratu zuten Erroman, eta Nafarroako Erreinuaren merindadeak irudikatu nahi ditu. Baina egiazki, Euskal Herriko lurralde osoa hartzen du, Pirinioetako bortuz iparralderako eta "Bizkaiko aldeko" eremuak barne.

All'Emo. e Seren. Sig. Il Sig. Cardinali North
Eminentissimo Principe
 In breve giro d'un Paese, raccolto ad una
 Terra, pubblicò l'istesso della sua divisione, of
 fu all'Arz. di Merind. universali di V.R. e in
 tutto con il suo. fuo. per la Repubblica di
 Lettera, e di ogni per l'Esposizione per l'Espos.
 qual Merind. per l'Espos. del tutto, le che
 per tutti per l'Espos. di questo a l'Espos.
 presentandosi
 1712.


NOTE
 Scala
 1 Miglia = 1/200000
 1 Legua = 1/100000
 1 Stadio = 1/100000

Hizkuntzak eta euskara mapetan

Euskal Herriaz historian zehar bereziki ekoitzi den kartografia, oso loturik egon izan da euskararen hedapen eta erabilerarekin. *Imago Vasconiae* atlasean horren adibide esanguratsu batzuk ditugu.

1730ean Gottfried Hensel hizkuntzalariak *Aita Gurea* otoiitz kristaua erabili zuen Europako hizkuntzak mapa batean kokatzeko, eta Iberiar Penintsularen iparraldean euskarazko moldean jarri zuen: *Gure aita cerue tan aicena...*

Euskaren hedadura irudikatzeke lehen mapa segur aski 1810ean egin zuen Eugène Coquebert de Montbretrek. Horren ostean, beste asko gauza bera egiten saiatu ziren, C.F. Weilandek txekierazko Europako hizkuntzen mapako zerrendan *Baskowé* ere sartu zuen, adibidez. Askoz ezagunagoak dira Louis Lucien Bonapartek 1863an osaturiko euskalkien mapa izugarri zehatzak.



Euskalerriko Agerkai Lurkindarra, 1905ean argitaratua, euskarazko izenburua daraman ezagutzen den lehen mapa.

Euskarazko izenburua duen lehen mapa jakina 1905ekoa da: Ramon Adán de Yarza ingeniari bilbotarrak egindako plano geologikoa edo *Euskalerriko Agerkai Lurkindarra*. Eusko Ikaskuntzak, bestalde, 1922an Euskal Herriko

zazpi probintzien mapa moderno bat egitea agindu zuen, euskarazko izenekin. Hortik aurrera erakunde askok jarraitu zioten bide horri –1936tik diaporan inprimatu ziren batez ere halakoak–.

Bada 1961eko mapa bat, Francoren diktadura betean Donostian egindakoa eta egile ezezaguna duena. Euskal Herriaren mapa hori euskaraz dago osoki, legendak eta guzti, eta ertz batean Joanes Etxeberri Ziburukoaren aipua dakar: "*Iruñea, euskaldunen hiri buruzagia*". Horrek erakusten du momentu zailenetan ere kartografiak balio izan duela nortasunak berresteko eta aldarrikapenerako.

1979an Jose Luis Lizundia euskaltzainak eskala eta kalitate handiko mapa baten argitalpena zuzendu zuen Caja Laboral-Euskadiko Kutxarentzat, leku-izen guztiak euskaraz zituela, Nabarrenkozetik Kalagorrriraino, Kantauritik Ebroraino.

MAPEN ZOOMA HURBILTZEN

Mapak, izenak, irudiak eta ikurrak elkar lotuta, puzzle baten moduan argazki konplexu bat osatu dute Esparzak eta Oleagak *Imago Vasconiae*-n, Euskal Herriaren koordenada historiko guztiak balitu bezala.

Atlase hasten da Ptolomeoren informazioetan oinarrituriko mapekin, gero *Biscaya* eta *Biscaien* izenak dakartzaten karta nautikoak nagusitzen dira. Hasierako zati honetan badaude baita ere Nafarroako erresumako merindadeak –Pirinioetako bortuen iparralde zein hegoaldekoak– zehazten dituzten mapak. Adibidez, Giacomo Cantelli kartografo ospetsuaren irudi batek, Erroman 1690ean egina, Behe Nafarroa, Zuberoa eta Lapurdi aipatzen ditu Nafarroaren mapan, baita "*parte della Biscaia*" (Bizkaiko eremua) delako lurraldea ere, Kantauri ertzean.

XIX. mendea gatazka ugaritan murgildu zen eta armada handien behar militarrek asetzeko mapa joriagoak ugaritu ziren orduan. Baina korrante liberalek herrien benetako izatea estatu-nazioetara kimatu zuten, eta ondorioz, sarri



Liédénako Beatoak 1050 urtean egindako mapamundiaren xehetasuna, *UUasconia* hitza irakur daiteke Pirinioen iparraldean, Saint Serverreko monasterioaren irudi ondoan.

askotan, Euskal Herriko lurraldeak zaitikatuta agertzen ziren mapa horietan. Bazeuden ordea salbuespenak, 1817an Independentzia Gerraren harira Aaron Arrousmith grabatugile britainiarrek egindakoa kasu: marra horixka eta lodi batek lau probintziatako ertzak zeharkatzen ditu, egungo Hego Euskal Herriaren soslai kasik iguala irudikatzeke.

Pixkanaka, Oleagak dioen gisan, "garai historikoetan aurrera egin ahala, mapak, argazkien 'zoom' baten gisara, hurbildu egiten dira, eta eskalak eta xehetasunak hobetzen".

Hala iristen gara XX. mendeko kartografiara, abertzaletasunak hauspotutako iruditegi oso bat ekarri zuena. 1905ean *Mapa de Euskaria* argitaratu zen Parisen –1894ko Donostiako Lore Jokoez geroztik asko zabalduzako izena zeraman– Euskal Herriko zazpi probintziekin. Horri beste askok jarraitu zioten noski. Jose Luis Zumarragak egindako *Euskaleri'ko Karta* mapa ko-reografikoak 1930eko hamarkadako Euskal Herria islatzen zuten 400 marrazki baino gehiago zituen. Mapa hori Donostiako Aurrezki Kutxa Municipalak berrargitaratu zuen arrakasta handiz 50 urte geroago, 1983an, eta Frantziatik aterata berri zen Euskal Herriko etxe askotan zintzilikatu zen.

Imago Vasconiae bildumako azkeneko mapa 2021eko Ipar Euskal Herriko plano turistiko bat da. Orain mugikorraren ditugun aplikazioetako bilatzaile geografiko digitalei esker mugitzen gara harantz eta honantz. Baina kartografia historikoak jarraitzen du arma boteretsua izaten, Esparzari inoiz esan zioten bezala, "atlasik gabeko herria nortasun agiririk gabeko herria" delako. ●

“ ”

Akainak gaitza kutsatzeko denbora behar du, egunean bertan kenduta ez dago arriskurik

Aitor Cevidanes

Akainak edo kaparrak batetik, eltxo tigreak bestetik, Euskal Herrian duten presentziaz eta gurean dauden espezieez mintzatu zaigu Aitor Cevidanes ikertzailea. Osasuna eta ingurumena hizpide, dituzten arriskuez, herritarron uste faltsuez eta klima aldaketaren nahiz gizakion esku-hartzeen ondorioez galdetu diogu.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

Neiker Nekazaritza Ikerketa eta Garapenerako Euskal Erakunde-kidea da Aitor Cevidanes Miranda, Animalia Osasun saileko ikertzailea. *Naturan hezi* EHUren udako ikastaroetan entzun dugu eta berarengana gerturatu gara, hainbat zalantza argitu diezagun.

Zer jakin behar dugu kaparrei buruz eta zein mota eta non aurki ditzakegu Euskal Herrian?

Artropodoak dira, ez intsektuak, eta araknidoen familiakoak dira. Euskal Herrian gehienbat ditugunak *Ixodidae* edo akain gogorrek dira: odolaz elikatzen dira, odolez bete ahala puztu egiten dira eta tamaina asko handitzen dute. Larba, ninfa eta heldu dira bere parasitazio zi-

kloko faseak, eta fase guztietan behar du animalia baten odolaz elikatu.

Euskal Herrian hemeretzi espezie ditugu, eta Euskal Herriko erregina, mendira goazenean topatzen duguna, *Ixodes ricinus* da (euskaraz nola izendatu oraindik ez dugu erabaki). Pertsonoi zizta egiten digutenen %90 *Ixodes ricinus* da, ohikoa da basoetan, larre inguruetan... eta askok uste duenaren kontra, ez zaio eguzkia gustatzen, hezetan handia behar du eta horregatik basoak ditu gustuko, ez zelai zabalak. Inguruan ez badu animaliarik elikatzeke, hor ere ez duzu akainik topatuko. Gizakiez gain, animalia asko parasitatzeko gai da, izan etxabere (txakurrak, ardiak, behiak...), ugaztun basati (orkatzak, oreinak...), hegazti edo narrastiak.

Espezie honen ziztak larritu behar al gaitu?

Espezie honek Lyme gaixotasuna kutsatzen du, horregatik Euskal Herria zonalde endemikoa da gaixotasun honekiko (penintsula hegoaldeko beroa ez du gustuko *Ixodes ricinus*ak). Beraz, aintzat hartzeko arriskua da, baina izutu gabe, zeren egin ditugun azken ikerketen arabera, kapar mota honen %1-2 inguruk baino ez darama gaitza kutsatzen duen *Borrelia* bakterioa bere barruan. Gainera, beste bi faktore ditugu alde: batetik, gaitza kutsatzeko (bakterioa gure odole-ra igarotzeko) akainak gutxienez 24-48 ordu pasa behar ditu zizta egiten, hortaz menditik bueltatu eta egunean bertan kentzen badugu, ez dago arriskurik. Bestetik, *Borrelia* bakterioaren sintomak

erraz identifikatzen dira: ziztatu eta hurrengo egun edo asteetan azalean eritema migratorioa agertzen da (zirkulu formako arrasto moduko batzuk larruazalean) edota sukarra, eta halakoetan medikuarenera joan eta antibiotikoak hartuta erraz sendatzen da. Okerragoa da gaitza garaiz ez atzematea, zeren kroniko bilakatuz gero zaila da bai gerora diagnostikatzea, bai tratatzea.

Ohitu behar dugu mendira galtza luzeekin edo azala ahalik eta estalien joaten, nahiz eta uda izan, batez ere baso eremueta eta halakoetara.

“ ”

Euskal Herrian dugun akainak Lyme gaixotasuna kutsatzen du, baina %1-2 inguruk baino ez darama gaitza kutsatzen duen Borrelia bakterioa bere barruan



Menditik bueltan gorputza ongi begiratu eta kaparra kentzearekin arriskurik ez, beraz. Nola kendu kaparra?

Inoiz ez da olioia edo baselina erabili behar, edo poxpoloarekin erre behar, nahiz eta halakoak entzun izan ditugun. Izan ere, horrelako ekintzen ondorioz akaina estresatzen badugu, ahotik dena botatzen du eta bakterioa gure odolera sartzeko arriskua areagotzen dugu. Kaparra lasai utzi, aho estuko pintza batzuekin ondo hartu eta pixkanaka tira eginez atera. Gero zauria xaboiak garbitu eta kito.

Baina badago halako beldur bat, akaina ongi ateratzea lortzen ez badugu zati bat barruan gera daitekeela eta arriskutsua dela...

Mito asko dago, burua barruan gelditzen bada gure gorputz barruan arrautzak jarriko dituela eta halakoak. Baina ez, nahiz eta osorik ateratzen saiatu behar dugun, zatiren bat barruan geratzen bazaigu ere, ongi desinfektatu eta garbituta printzipioz ez du arazorik sortuko. Burua gure gorputz barruan gelditu dela? Zauria infektatu daiteke eta horregatik ongi garbitzea eta desinfektatzea komeni da, baina ez du gaixotasunik kutsatuko.

Bestelako gaitzik kutsa dezake *Ixodes ricinus*ak?

Alfa-Gal sindromea kutsatu dezake, ugaztunak odollean duen Alfa-Gal molekula ondoren gizakiaren odolera pasatzen badu. Ondorioa litzateke haragi gorria jaten dugunean erreakzio alergikoa sortuko ligukeela, horregatik deitu izan diote “begetariano bihurtzen duen akaina”. Beste bakterio batzuk ere kutsatu ditzake, baina ez da ohikoa. Hainbat hedabidetan orain oihartzuna izan du Krimia Kongoko sukar hemorragikoak; Espainiako Estatuko leku batzuetan agertu da, baina hemen hori kutsatzen duen akaina ez dago zabaldua, Araba hegoaldean baino ez dago, eta ez dakigu Euskal Herrian gaitza ba ote dagoen.

Udan alarma gorriak piztu ohi dira, edo hedabideetan oihartzuna izaten du behintzat.

Urte guztian aurki daiteke *Ixodes ricinus*en faseren bat, larba ez bada ninfa edo helduaroan, beraz ez dugu udan bakarrik aurkituko, baina egia da udaberrian ugaritzen hasten direla, larben leherketatik eta ninfa askoz gehiago



ERIK KARTIS / PEXELS

dagoelako, eta udaberrian eta udan ohi-koagoa dela mendian akainen batekin topo egitea.

Egia al da azken urteetan ugaritu egin direla?

Pertzepzioa hori da, kontzientzia ere handiagoa da herritarren artean eta arreta handiagoa jartzen dugu, baina oraingoz ez dago datu zientifikorik gehiago dagoela adierazten duenik. Juxtu proiektu bat hasi dugu Pirinio inguruko beste hainbat lurralderekin batera, duela 20 eta 30 urte datuak hartu genituen leku berdinetan berriz ere laginak hartu eta ikusteko kopurua aldatu egin den ala pertzepzio kontua baino ez den. Azterketak balioko du baita ere bakterioa daramaten kaparraren prebalentzia eta transmisio potentziala aldatu ote den ezagutzeko.

Bestalde, klima larrialdiak aldaketak ekar ditzake, beroak eraginda zikloak azkarrago osatzea eta abar, baina gure kasuan, akain espezie honek hezetasuna eta freskotasuna bilatzen duenez, beharbada klima aldaketak

“ ”

***Mito asko dago,
kaparraren burua barruan
gelditzen bada gure
gorputz barruan arrautzak
jarriko dituela-eta, baina
ez da hala***

kontrakoa ekarriko du eta gutxitu egingo dira. Ikusteko dago. Bai izan liteke klima aldaketaren ondorio kaltegarri bat, ordea, Krimea Kongoko sukar hemorragikoa kutsatzen duen akaina Euskal Herrian zabaltzea, klima mediterranea eta beroa dituelako gustuko.

Bioaniztasunaren, kate trofikoaren edota parasitazio zikloaren ikuspegitik kaparra eskolan lantzea

interesgarri ikusten duzu.

Batetik, gertutasunagatik. Inguruan ditugun animaliak dira eta ez dugu sabanara joan beharrik kate trofikoak ikasteko. Eta bestetik, bioaniztasuna modu osoan eta bere konplexutasunean ulertzeko eredu egokia direlako, bai animalion arteko harremanari dagokionez, bai gaur egun hainbeste aipatzen den osasun bakarraren kontzeptuaren ikuspegitik. Ekosistemen osasuna, animaliena eta gizakiena elkar lotuta daudela dio ideia honek, ekosistemetan eragiten ditugun aldaketek gero guregan eragin dezaketela, eta akainak horren adibide dira. Hainbat ikerketak erakutsi du ekosistema jakin batean dauden animalien dentsitatea aldatzen bada, adibidez espezie batzuk desagertzen badira, akainen eta patogenoaren zikloan eragina izan dezakeela, esaterako kaparrak ugaritu daitezkeela eta hori gizakioi bueltan etorriko litzaigukeela.

Animalia espezie batzuk gutxituta, kaparrak ugaritu?

Akainak bakterioa kutsatzen du, baina patogenoaren gordailua edo ostalaria beste animalia bat da, eta badira oso gordailu onak diren ostalariak (bakterio asko sortzen duten animaliak) eta beste batzuk okerragoak; gure ekosistema sinpletzen bada, espezie batzuk desagertu eta aldiz gordailu hobekak diren animaliek eusten badiote, kapar positibo gehiago izango ditugu eta ondorioz guk arrisku handiagoa izango dugu.

Diptikoa egin duzue, bai kaparren bai eltxoen inguruko informazio baliagarriarekin, besteak beste baso-eskolara joaten diren ikastetxeetan irakasleei banatzeko. Eltxoek ere kezka sortzen al dute ba herritarren artean?

Eltxoetan eszenatoki berri batera egin dugu salto. Euskal Herrian ez ditugu inoiz oso kontuan hartu, arazo bihurtzen ziren Mediterraneora kanpinera edota furgonetarekin auskalo nora joaten ginenean. Hemen, noizean behin eltxoren batek zizta egiten zigun, gauez, leihoa irekita genuela... Baina paradigma aldaketa egon da azken urteetan: gauean enbarazu egitetik egunean zehar ziztada ugari jasotzera igaro gara. Eltxo tigrea da horren arrazoia. Espezie inbaditzaile hau duela hamar urte iritsi zen Euskal Herrira, Behobia eta Irun aldetik, eta asko ugari da hiri inguruetan, batez ere Bizkaia eta Gipuzkoako hiriguneetan, eltxo honen ezaugarrietako bat delako oso hiritarra dela.

Espezie hau ez da gai distantzia luzeak hegatan egiteko, 200-500 metro asko jota, beraz eltxo ziztada jaso dugun gunetik gertu egongo dira eltxo hauen haztegiak, edo beste era batera esanda, hazteko behar duten ur pila-tua. Oso ur bolumen txikia behar dutenez, aurkituko ditugu loreontzi-plateren inguruan, lorategia urreztatzeko bidioien eta urretagailuen bueltan, baratzeiko ur barrikaren alboan... Eltxo tigreak hazteko lekuen %70-80 inguru zonalde pribatuak dira, gure lorategi, balkoi eta abarrak, eta horregatik, prebentzioan herritarrok lan indibidual asko dugu egiteko, ura duten edukiontzi artifizial horiek kendu behar ditugu.

Eltxo tigreek arriskurik ba al dute?

Bai, badute. Eltxo tigreak daukan ezau-garri nagusietako bat da elikatze oso gizaki-zalea dela, ziztada asko jasotzen



Ezkerrean, *Ixode ricinus* espeziea; Euskal Herrian zizta egiten diguten akainen %90 espezie horretakoa da. Goian, eltxo tigrea.

“ ”

Eltxo tigreak hazteko lekuen %70-80 inguru zonalde pribatuak dira, gure lorategi, balkoi, baratzeak; saihesteko, ura duten edukiontzi artifizialak kendu behar ditugu

ditugu eta ziztada horiek azkura dezentente eta erreazioak eragiteaz gain, gaixotasunen kutsatzaile dira, batez ere dengea, zika eta chikungunya birusak. Euskal Herrian, ordea, ez ditugu birus horiek eta beraz hemengo eltxo tigreek ez dute birusa barruan, baina urtero egon ohi da kasu inportaturen bat edo beste, bidaian atzerrira joan eta han gaitza hartu duena. Bueltan odolean oraindik birusa baldin badu, arriskua dago eltxoak zizta egin eta beste norbait kutsatzeko, eta orduan

hitz egin beharko genuke kasu autoktonoek, ez soilik inportatuek. Frantzia eta Italia, adibidez, azken hiru urteetan ehundik gora kasu autoktono izan dituzte, denge kutsatuak. Denge kasu gehienak, gainera, sintomarik gabekoak dira eta horregatik zaila da atzematen.

Kezkatu beharko gintuzkeen beste eltxo espezierik?

Euskal Herrian 31 eltxo espezie dektatu ditugu eta horietako bi dira inbaditzaileak (eltxo tigrea eta antzeko beste bat). Espezie gutxi batzuk baino ez dute gizakien odolaz elikatze joera eta nabarmendu behar da eltxoek funtsezko eginkizuna dutela kate trofikoan. Aranzadirekin batera proiektu bat dugu, eskoletako urmael sarean, ikertzeko mikro-hezegune horietan, putzu natural eta artifizialago horietan, ea eltxoak dauden, bertako anfibio eta odonatuek jaten dituzten eta abar; oraingoz ez dugu eltxo tigrerik aurkitu halako ekosistemetan, eta aurkitu daitzkeen beste eltxoen kasuan, bertakoetan, kopurua oso erregulatuta egoten da harrapakari naturalak dituen ekosistema batean. ●

“Dragon Boat-arekin gorputzarengan geneukan konfiantza berreskuratzen dugu”

Kirol ugari egin ditu Mercedes Ortega Barrenak (Bilbo, 1967); hala nola atletismoa, paddel surfa eta orain arrauna. Hondarribiko HS2 Surf Center eskolako Dragon Boat taldeko kidea da. Batik bat minbizia duten edo izan duten emakumez osaturiko taldea da. Barrenak nabarmendu du “oso lagungarria” dela osasun fisikoa, emozionala eta psikologikoa zaintzeko.

 OLAIA L. GARAIALDE  GARI GARAIALDE



Mercedes Ortega

Duela ia hamar urte, Donostiako Fortuna kirol klubarekin paddel surfa egiten hasi zen Mercedes Ortega Barrena. Aldakan protesi bat jarri behar zutelako eta indartu nahi zuelako hasi zen kirol horretan. Hasieran, poliki-poliki eta gero txapelketetan ere parte hartzen hasi zen: “Oriotik Donostiara joaten nintzen”. Hortik urte batzuetara, 2020an, koskor batzuk sentitu zituen bularrean, medikuarenera jo, eta bularreko minbizia zela esan zioten: “Erabaki nuen paddel surfarekin jarraitzea, eta primeran etorri zitzaidan. Orduan ikusi nuen kirola egiteak duen garrantzia”.

Prozesu onkologikoa “oso luzea” eta “gogorra” izan dela azaldu du, baina kirola praktikatzan jarraitu nahi izan du, lagungarri zaiolako: “Kimioarekin hasi nintzenez onkologoari galdetu nion, eta jarduera fisikorekin jarraitzeko esan zidan. Gero bularra berreraiki zidaten, eta ahal nuen moduan jarduera fisikoa egiten saiatu nintzen. Ostean, radioarekin neke-neke eginda nengoen,

“Poliki-poliki elkarri zalantzak argitzen goaz, ditugun beldurrez mintzatzen gara eta tratamenduak komentatzen ditugu”

baina indarra ateratzen saiatzen nintzen”. Gaineratu du batzuetan nekearengatik “zaila” izan arren, azkenean on egiten diola: “Jarduera fisikoa egin ostean hobeto sentitzen naiz; batez ere, naturan eta taldean denean. Poza eta lasaitasuna eragiten dizkit”.

Duela lau hilabete inguru Hondarribiko HS2 Surf Center eskolatik deitu zioten, esanez Dragon Boat bat martxan jarriko zutela. 2.000 urte baino gehiago dituen asiarratik kirol nautikoa da. Taldean egiten da eta arraunarekin lotura dauka. Ontziaren helburua da minbizia izan duten edo daukaten ema-

kumeak elkartzeko eta ahalduzko tresna izatea. “Oso kontent jarri nintzen deitu zidatenean; ilusio handia egin zidan”, esan du Ortegak. Gehienek minbizia pasa badute ere, badira minbizirik izan ez dutenak: “Izugarrizko enpatia eta hurbiltasuna erakusten dute”.

HS2 Surf Center eskolak sustatutako proiektu bat da, baina babesleak bilatu behar izan dituzte ontzia erostea eta mantentzea “oso garestia” delako. Proiektuak Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Hondarribiko Udalaren eta lurraldeko minbizien aurkako elkartearen laguntza jaso du, hala nola Iñurri, Katxalin eta AECC elkarteena. “Oso eskertuta nago eskolarengatik, babesleengatik eta batez ere taldearengatik”.

TALDEA AHALDUNTZEKO TRESNA

Astean bitan elkartzen dira entrenatzeko, eta Ortegak azaldu duenez, gauza askorako lagungarria da Dragon Boat-a. Ikuspegi fisikotik, arraunean egin behar diren mugimenduek ebakuntzen ondorioz ahuldu diren giharrak indartzen

laguntzen dute: “Bularra eta gon-goilak kendu zizkidaten, eta bularra berreraikitzeke bizkarreko gihar zati bat. Indarra galdu dut, baina poliki-poliki berreskuratzen ari naiz”.

Orain arte ez du bularreko min-bizia duten edo izan duten pertsonen elkarteetara jotzeko beharrik izan. Hala ere, maila emozionalean eta psikologikoan ere “oso lagungarria” izan da talde baten parte izatea: “Poliki-poliki elkarri zailantzak argitzen goaz, ditugun beldurrez mintzatzen gara eta tratamenduak komentatzen ditugu”. Hori dena barre algara artean egiten dute: “Egoera bitxiak sortzen dira ontzia hartu behar dugunean. Asko pisatzen du, eta beso batean bestean baino indar gutxiago daukagu. Orduan lekuz aldatu behar izaten gara eta tarteka ahulago dagoen besoarekin arraun egin behar dugu”.

Antzeko prozesua bizi dutenekin hitz egitea eta elkarrekin esperientziak partekatzea polita dela dio: “Besteek zertaz ari zaren jakinda hitz egitea ongi dator. Nekea aipatzen dugunean jendeak ezin du imajinatu zer nolako nekea den, ezta zenbat gauza pasatzen diren burutik ere. Prozesua dudarik gabe gogorra da, baina horrelako tresnekin errazago pasatzen da”.

Kontent eta babestuta sentitzen da taldean, elkar zaintzen dutelako eta konfiantzazko espazio bat sortu dutelako: “Dragon Boat-arekin askatu egiten gara, gorputzarengan geneukan konfiantza berreskuratzen dugu eta hobeto sentitzen gara geure buruarekin”. Horregatik, uste du “garrantzitsua” eta “eraginkorra” dela, eta ez dela edozein proiektu: “Oso esperientzia polita izan da eta oso giro ona daukagu. Espero dut minbizia pasa duten emakume gehiago hurbiltzea”. ●

GORPUTZEKO ATAL BAT?

“Burua, argi eta garbi daukat. Nire kasuan minbiziarekin garrantzitsuena burua izan da, albistea nola hartu nuen eta zer nolako jarrera izan dudana bizitzan. Onkologoari eskerrak eman nizkion uste nuelako kimioa gogorragoa izanena zela. Onkologoak esan zidan neure buruari emateko eskerrak, meritua nire jarreran dagoelako”.



GAKOAK



Urtero bezala, 'Gakoak' abuztuan iritsiko da ARGIAzaleengana. Ehundik gora orrialde ditu aurtengo udako aldizkariak.

Oporretarako irakurketa-dosia

ONINTZA IRURETA AZKUNE

Badator aldizkari mardultxo, alegia, urteroko *Gakoak*. Abuztuan astekariak atsedean hartzen du, baina ARGIAzaleek, basoko gerizpean edo hondartzako eguzkipean, irakurri gosez jarraitzen dutela jakinda, ehun orrialdetik gorako aldizkaria prestatu dugu. Iazkoaren ildo beretik aritu gara oraingoan ere, ilustrazioak, elkarrizketak, erreportajeak, ipuina, infografiak... denetarik pixka bat, guztien aho gozagarri izango dena eskaini nahian.

Ruper Ordorika paratu dugu azalean, eta barruan aurkituko duzue Gorka Peñagarikanok egindako elkarrizketa patxadatsua. Bigarren elkarrizketa bat ere bada aldizkari honetan, Arantxa Orbegozo *Txitxi*-ri egindakoa. Oñatiarra bezain ezaguna ez da izango agian, baina badauka zer kontatu bidaiari, kirolari eta margolari tolosarrak. Ainhoa Mariezkurrenak elkarrizketatu du Villabonan (Gipuzkoa).

Elkarrizketez gain, hainbat erreportajeren artean gustukoenak aukeratzeko parada izango du irakurleak. Mikel Garcia Idiakez hautuz gurasobakar diren lau lagunekin egon da eta, besteak beste, familiaz, azalpenak eman beharraz, topikoez eta kontziliazioaz hitz egin dute. June Fernandezek, berriz, migrazio-doluari heldu dio Susanna Martinek ilustratu duen erreportajearen. Mikel Aramendik astero

eskaintzen dizkigu argia.eus-en geopolitika aletxoak. *Gakoak*-en, hainbat orrialdetan, Palestinako genozidioaren ondorioez aritu zaigu. Galdera hauek egin ditu: Israelek zer irabazi eta galdu du? Irani onura ekarri dio probokazioetan ez erortzeak?


Palestatatik Pakistanera, Igone Mariezkurrenaren eskutik. Argazki-erreportajearen muturreko lehorteek eta euriteek Asiako herrialde horretan piztu eta bizkortzen dituzten gaitz sozialak aletu ditu. Estitxu Eizagirrek, aldiz, etxeraino ekarri gaitu, Behorlegiraino (Nafarroa Beherea). Odei Etxeberri eta Gorka Rocaren etxean izan da, haien baratze-oihanean. Lau kideko familia elikatzeko buruaski direla kontatu digute.

Ainhoa Urienek ipuin bat kontatu digu, kontaketa berezia, egiazko pertsonaiak baititu hizpide: 1936ko Gerra betean erditu zen Julia Amesti ermuarra eta bere alaba dira protagonista.

IBILBIDEAK

Ipurdia altxatzeko gonbitea ere badakar *Gakoak*-ek. Urko Apaolazak Euskal Herrian bertan egiteko ibilbide dekolonialak proposatu dizkigu eta Xabier Iabenek Aragoiko Asabón errekan barna bizikletaz egin duen ibilbidea kontatu digu, maki gerrillari anti-frankisten arrastoa jarraituta. ●

Leonard Peltierren ihes ukatua



NAGORE
IRAZUSTABARRENA
URANGA

Lompoc (Kalifornia, AEB), 1979ko uztailearen 20a. Leonard Peltier ekin-tzaile indigenak eta beste bi presok espetxe federaletik ihes egin zuten. Iheskideetako bat kartzelaren kanpoaldean bertan tirokatuta hil zuten; bestea ordu eta erdi geroago atzeman zuten handik milia batera. Peltier, aldiz, hiru egun geroago atxilotu zuten Santa Marian (Kalifornia), nekazari batek zapatak, diruzorroa, autoa eta janaria lapurtu zizkiola salatu ondoren. Beste zazpi urteko zigorra erantsi zieten Peltierrek aurrez zituen bi biziarteko kartzela zigorrei.

Peltier anishinaabe lakota jatorrikoa da eta Amerikako Indiar Mugimenduko militantea zen. Bi kartzela zigorrak 1975ean Pine Ridge erreserban FBIko bi agente hiltzeagatik ezarri zizkioten. Hego Dakotako siouxen lurralde sakratu haietan uranioa eta ikatza aurkitu zituzten hilabete batzuk lehenago. Lehengai horiek ustiatzeko ahaleginean, lakota herriko kideak jazarri zituzten eta 250 indigenatik gora hil zituzten, baina ia 50 urte geroago kasu bat bera ere ez da ikertu. 1975eko ekainaren 27ko tiroketa haren ondoren, ordea, berehala (eta presiopean) bildu zituzten Peltierren aurkako testigantza faltsuak.

Gerora jakin zen FBIk disidentziaren aurkako Cointelpro kontrainteligentzia programa erabili zuela bere aurka. Cointelpro programa "Estatu Batuetako Alderdi Komunistaren jarduna eteteko" sortu zen berez, baina beste talde batzuk ere



Leonard Peltier 1976ko abenduan, Oakalla espetxean (Kanada), AEBetara eramango zuen helikopteroa hartzeko bidean.

jomuga izan zituen: Ku Klux Klan, Langileen Alderdi Sozialista eta Pantera Beltzak, besteak beste. Leonard Peltier eta Pine Ridgeko Indiar Mugimenduko beste kide batzuk ere begiz jota zeuzkaten FBIko bi agenteen hilketa baino lehen.

Peltierren errugabetasuna zalantza izpirik gabe frogatzen duten 10.000 folio baino gehiago daude, baina klasifikatuta jarraitzen dute. Hamarkada hauetan haren askatasuna eskatu duten erakunde eta pertsonen zerrenda luzea da: Amnistia Internazionale, NBE, Europako, Belgikako eta Italiako parlamentuak, Nelson Mandela, Desmond Tutu, Rigoberta Menchu... 1980an Apelazio Epaitegiak aitortu zuen Peltierren aurkako txoste-

nean "FBIko agenteen jarrera desegokiaren frogak" daudela, eta Fiskaltzak ere onartu zuen frogua zuzenik ez zegoela Peltierrek bi agenteen hilketan parte hartu izanaz. Baina baldintzapeko askatasuna aztertzeaz arduratzen den batzordeak Peltierren aldeko eskaerak atzera bota izan ditu beti "hilketengatik erantzukizun kriminala onartzen ez duelako".


Leonard Peltierrek 79 urte ditu eta gaurorik dago. AEBetako preso politikorik zaharrena da, kartzelan denbora gehien daramana: ia 48 urte. Hil honen hasieran, ihes egiten saiatu zenetik 45 urte bete-tear zirela, Peltierren kasua berriro epaitzietara joan da, eta baldintzapeko askatasuna ukatu diote enegarren aldiz. ●

Margolan figuratibo zaharrena

Sulawesi (Indonesia) uhartearen hegoaldean, Leang Karampuang kobazuloan hiru irudi antropomorfoz eta basurde batez osatutako margolana aurkitu dute Griffith eta Southern Cross unibertsitateetako eta Indonesiako Agentzia Nazionaleko arkeologoek. *Nature* aldizkarian argitaratutako ikerlanaren arabera, aurkikuntza

datatzeko metodo berritzailea erabili dute: pigmentuetatik hurbil dauden karbonatoak aztertzen ditu laserraren bidez. Eta emaitza zehatza izan da: artelanak 51.200 urte ditu gutxienez. Horrek esan nahi du ezkerreko irudian dagoen eszena orain arte aurkitutako margolan figuratibo edo narratiborik zaharrena dela. ●

GRIFFITH UNIBERTSITATEA



DESERRIRATU EGIN GAITUZTE ETA BADAHITE



AMANDA VERRONE
EKOFEMINISMOA EDO HERIOTZA

Gure bizitzan zehar, jaberik gabeko zenbat ibaitan bainatu gara? Senarrik gabeko zenbat baratze-tatik elikatu gara? Zenbat hazi kreole lorarazi ditugu aitarengandik, osabarengandik edo anaia ezkongabearengandik heredatu ez ditugun lurretan? Azken batean, zenbat emakume ezagutzen ditugu haien ametsak ereiteko lur-zatitxo batean sartu direnak, botere-erakunde heterosexualei aurre egin behar izan gabe? Gutxi izan dira askatutako lurretan bildu ahal izan diren andre libreak.

Ikuspegi juridikotik –boterearen aita-hizkuntza–, asimetria horren arrazoietakoa bat lurrerako eskubidearen bilakaerarekin lotzen da, hainbat arau-tradiziotan lurraren jabetza pribaturako eskubidearen aginduetara makurtuta egon baita. Beraz, lurra berreskuratu ahal izan duten emakume gehienek gizonen jabetza-eskubidea zalantzan jartzen ez duten mekanismoen bidez egin behar izan dute, baita lurra eta emakumeen eskubideak zalantzan jartzen ez dituzten baliabideekin ere.

Ezkontza, herentzia, merkatuko nekazaritza-erreforma edo agronegozia nagusi den lurren nazioz gairikoko ekonomia baten erosketa eta salmenta. Familia, Estatua eta Merkaturak: zuzenbideak gure gorputz eta lurraldeen gaineko menderatze maskulinoa mantentzeko legitimatu dituen instituzioak. Are gehiago, lurrerako giza eskubidea berandu aitortzeaz gain, jabetza eskubideari –berme gisa ulertuta– ez ezik, jabetzarako eskubideari ere lotzen zaio, hau da, eskuratzeko eskubideari. Praktikan, horrek esan nahi du gizonen eta emakumeon arteko lurralde-banaketa bidegabea naturalizatzea eta ontzat jotzea.

Andreok gizonekin eta haien erakundeekin harremanik izan gabe lur-zatitxorik ez edukitzea ez da fenomeno berria, ezta gaur egungo eraikuntza demokrati-



CAMILA SCHINDLER

koaren ustekabeko inperfekzioa ere. Abya Yalan, emakumeen landa-titulartasun urria kolonizazioari dagokio, eta hori ezinbestekoa izan da lur metaketa gizon inbadi-tzaileen esku gelditu dadin bermatzeko.

Kolonizazioaren hasieran, lurrerako sarbidea trukerako txanpon gisa erabiltzen zen emakumei eskubide zibilak aitortzeko eta estrategikoki muga kolonialistak hedatzeko. Estrategia horrek ez zuen lurrean bakarrik eragiten, baizik eta andreen gorputzean, pertsona pobretu eta esklabotuetan, eta nekazaritza estentsiboko eredian erabiltzen ziren ume eta animalietan.

Proiektu zibilizatzaile horrek kanporatu eta ustiatu egiten du bizirik dagoen guztia eta gizonen nagusitasunetik at dagoen guztia. Era horretan eraiki ditu Latinoamerikako estatu-nazio asko, baita planetaren luze-zabalean dauden mendeko beste herri asko ere. Nancy Fraserrek irakatsi bezala, jatorrizko espolio heteropatriarkalari eta biztanleria zuritze-ko proiektu supremazistari gehitu behar diogu gaur arte irauten duen metaketa kapitalistak borobildutako guztia.

Beraz, ez da kasualitatea emakumeek gidatutako eta landutako lursailik ia ez ezagutzea. Gure lurrak lapurtu dizkigute. Deserriratu egin gaituzte eta badakite. Eta gatibutasun hori ziurtatzeko, lanaren banaketa (hetero)sexuala ezarri digute, eta, gainera, horren ondorioei maitasuna deitzen ikasi dugu. Zuzenbide Estatuaren oinarriek legitimatutako lurralde-arpilatzea da, gizonen arteko askatasuna eta ermandearen historia besterik ez den kontratu sozial batean errotua.

Azken finean, Carole Pateman-ek azaltzen duen bezala, kontratu sozialaren existentzia alde aurretik beste kontratu inplizitu bat egon delako da; kontratu sexuala, hain zuzen ere. Kontratu horrek aukera eman die gizoni emakumeen gorputzak arautzeko eta haietara iristeko, eta, aldi berean, galarazi egiten die emakumei gizarte modernoetan parte-hartze politiko eta herritartasun osoa izatea. Monique Wittig-ek beste urrats bat eman eta "kontratu heterosexual" izendatu zuen; andreak izaki "jabetuak" eta "jabegarriak" direla uste baitzuen, eta, beraz, kontratuko elkarrekikotasunik ez dutela zioen.

Egoera global bortitz, belizista eta ultra-eskuinak gora egiten duen honetan, andreak lurrerako duten giza eskubidearen eraginkortasunak ezin du jarraitu erretorika hutsa izaten Mendebaldeko arrazoi maskulinoaren bakarriketa sendotzeko. Lurrerako sarbidea oztopatzeak boterearen erakunde geopolitiko sexistak eta arrazistari erantzuten dio. Gure erronka, hortaz, bizitzaren menderatze-sistema anizkoitz hori ikusaraztea eta ezegonkortzea da. Emakumeon mugimenduetan (*err*)existentzia feministaren praxian jada loratzen diren beste eredu batzuk legitimatuta lortu daiteke; eta horiek, nekez iristen dira lurralde-antolamenduaren monopolio juridikora. ●

A ZE FAUNA!

“AZKEN DANTZA HAU” BISIGUARENA IZAN EZ DADIN



ENEKO BACHILLER OTAMENDI
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

Txikitan kaian arrantzatu ohi genituen “pantxito” gehienak ziurrenik bisiguak izango ziren, baina nekez ikusten genituen bisigu handiak. Izatekotan, jateke ezagunetan izango zen, arrandegietako bisigu gehienak kanpotik ekarriak ziren eta. Egun, kostaldeko hainbat herritan bestelako espezieen ale gazteak ere pantxitotzat hartu ohi dira: hala nola lentoi, lamote edo birloteak. Bisigua bereizteko, ordea, begiaren tamaina handiagoari erreparatu behar zaio; eta zakatzen atzealdean duen orban beltz borobilarri (zaila bereizten, ale txikietan). Kontuan izan, eta utzi aske, uretan.

Bisigua (arrozela Hondarribian), XIV. mendetik da euskal kostaldean arrantzatua. Hasieran eskuz harrapatzen zituzten, amuz betetako pita bertikalak erabilia. XIX. mendean, arrantzaleak pita-lerro luzez osatutako tretzak (gaztelaraz “*palangre*”) erabiltzen hasi ziren. Ordurarte, bisigua Euskal Herrian deskargatutako arrain-espezie garrantzitsuenetako bat izan zen. 1950eko hamarkadan, arraste-arrantzaren hedapenarekin bisigu-harrapaketek ere gora egin zuten, 20 urtez. Baina ez gehiago, ez zegoelako. Gaur egun, 1970ean arrantzatzen ziren 100 aletik bakarria arrantzatzen da. Eta azken hamarkadari erreparatuta, bisiguaren ugartasuna heren batera amildu da.

Gure arrantzaleen eremuko bisigu populazioa eremu honetara hedatzen da: Kantauri itsasotik, Bizkaiko Golkoa zeharkatuta, Eskoziara. Eta badira beste bi populazio ere, neurri txikiagoan gainbehera sumatu dutenak. Batetik, Iberiar Penintsula hegoaldeko populazioa; bestetik, Azores irla inguruetakoa. Gure jateketan nahiz Orioko Bisigu Egunean topatuko ditugun gehienak ziurrenik bi populazio hauetatik arrantzatutak izango dira; eta gure ingurutik, ordea, oso gutxi.

Bisiguaren berreskuratze-prozesuak hainbat erronka ditu. Batetik, bisigu gutziek gonada ar eta emeak garatzen dituzte;



ENEKO BACHILLER

BISIGUA *Pagellus bogaraveo*

TALDEA: Ornoduna/Arraina.

NEURRIA: 30-40 cm.

NON BIZI DA? Gazteak pelagikoak dira, baina helduak sakonera handitan bizi ohi dira (400 – 700 m).

ZER JATEN DU? Itsas-hondotako krustazeoak, moluskuak, arrainak eta planktona.

BABES MAILA: Laket-arrantzaletako bakoitzak urtean ale bakarra hartu dezake (>40 cm). Arrantza komertzialean arautegi bereziak daude.

txiki guztiak arrak dira, eta behin 33 cm inguruko neurrira heltzean, 4-6 urte dituztela, gehienak eme bilakatzen dira, arrautzak ernaldutako ahal izateko ar mantenduko diren gutxi batzuk izan ezik. Arrantzaleek gehien estimatzen dituzten aleak, eta legez hartu ditzaketanak, handienak izan ohi dira (>36 cm arrantza industrialean, >40 cm laket-arrantzan); beraz, arrantzatzen diren gehien-gehienak, arrautzak errungo dituzten emeak dira. Bestetik, ugalketa ne-

guan egiten duen espezie hau Gabonetako aspaldiko ohiturei aurre egin beharrean dago, garai zaugarrienean alegia. Eta azkenik, sakonera handietan bizi diren arrainak izaki (helduak 400 – 700 metro inguruko sakoneratan bizi ohi dira), hazkunde motela izaten dute; 10 eta 20 urte bitartean bizi dira. Eta honek, espeziea arrantzatzea gabe egonda ere, berreskuratzea urte dezente beharko direla iradokitzen du, hainbat belaunaldik eme bihurtzeko gutxieneko neurria hartu arte bederen.

Iberiar Penintsulakoak gara bisiguaren kontsumitzaile handienak. Historiatatik eta ohituratik, beharbada. Ondare kultural izendapena jasotzeko hautagai proposa izan litekeen espezie hau laket-arrantzan harrapatuz gero, ordea, kontuan izan, ale handi eta bakarra arrantzatzea dezakezula, urtean. Beraz, ondo izoztu Gabonetarako, eta tartean, dastatu arraigorriak, lamoteak, lentoiak, edo birloteak. Denak dira antzekoak, txikitan. Baina eman diezaiogun bisiguari bere aukera; pantxitoak bisigu izan daitezen. Bego hamarkada hau (gutxienez) eta, ondo jokatu gero, etorriko da, betikotz, gure (itsas-h)ondora. ●

PORRUAK ETA SANTUAK



JAKOBA ERREKONDO

JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS

Porrusalda hemen da. Uztaileko ilbehera da, nire iritziz, udazkenaren, neguaren eta udaberriaren hasiera gozatuko dizkigun porrua landatzeko sasoirik onena (*Allium ampeloprasum var. porrum*). Porruari ez zaio gustatzen berorik eta are gutxiago lehorterik. Uztailean eguna laburtzen hasia dago –ekainaren 20ko solstizio-ko egun luzeenetik uztailearen 31 artean zehazki 45 minutu eta 12 segundo moztuko da– baina oraindik egunak oso luzeak dira, eta hazteko, hori maite du; fotoperiodikotasun luzeko landarea da, bai orain hazteko eta bai hurrengo urtean udaberriko egunik luzeenetan loratzeko ere. Baina porruak badaki zernolako gozamina datorkion: egunetik egunera egun-argia moztuz ari du, eta eguzki, bero eta lehorte gutxiago eta ur eta hotz gehiago. Orduan gozatu egingo da porrua, zenbat eta hotz gehiago, orduan eta gozoago. Porruak bere liliazeoen familiako baratxuriak (*Allium sativum*) eta tipulak (*Allium cepa var. cepa*) bezala usain eta dasta bereziak ditu sufreaki lotutako esentziak direla medio: horregatik osasunerako oso onak direla diote jakitunek.

Dakitenez diote, baita ere, porruak sustraietan ondoekin tratatuak egiten dituela. Horrek hazkundean lagunduko dio, eta bere elikadura aberastuko duten jakiak ekarriko dizkio, batez ere fosforoa. Porruaren traturako gaitasun hori baliatzen ari dira, sustraietako laguntza hori beste barazki batzuetan ere txertatzeko. Nafarroan, Castejonon, toma-tearekin eta piperrarekin egin dituzte saioak: porruetan sustraietako mikorrizak sortu eta gero beste barazkion hazietan edo landareen sustraietan txertatu dituzte. Horrekin landarearen ke-



JAKOBA ERREKONDO / ARGIA-CC-BY-SA

mena harrotzen da eta, batez ere, lehorte sasoiaren bat bada hari aurre egiteko bere gaitasuna hazi egiten da. Horrek etorkizun handiko teknika bilakatu du, klima aldaketaren medioz datorren panorama seko lehortarekin. Hezezale eta lehorkontrario amorratua den porruak salbatuko ditu Euskal Herriko hego muturreko muturreko beroak bizitzen dituzten berozaleenak.

Milaka urte da porrua landu eta jaten dugula. Mesopotamia, Turkia, Egipto eta inguruko lurraldeetan duela 3.000 urte baino gehiago jaten zutela esaten da, esklabo piramidegileen jaki bezala, adibidez. Gero erromatarrek bereganatu eta hedatu omen zuten. Itxuraz, Euskal Herrira duela ehunka urte gutxi batzuk ekarri zuten. Isuri atlantikoko jende txi-

roaren oinarrizko elikagaia zen negu partean. Orain ere badugu porrutik: 2021ean Hego Euskal Herrian ia 7 milioi kilo porru sortu zen, erdia Nafarroan. Porrusalda izango da gure ikur gastronomikorik ederrenetakoa, egun ahaztu xamarra daukagula iruditzen bazait ere. Ez ote zuen bada bateren batek zabalduko Eric Birlouez ingeniari agronomo eta soziologo handiak 2020ko *Petite et grande histoire des légumes* ederrean dioena, hau da, Hildegarda Bingengoa (1098-1176) santa renaniarrak porruari egotzen ziola sexurako grina eta indarra zapuztea.

Munduko porru ekoizle eta jale handiena Frantzia da; eta, santuak santu, han argotean “porrua” esaten diote zakilari. ●

LANGILEAK ORDEZKATZEKO ZERBITZUA

LABORARIEK ERE OPORRETARAKO ESKUBIDEA IZAN DEZATEN



GARAZI ZABALETA
@TIRIKITRAN

Nekazaritzaz eta abeltzaintzaz askotan entzuten da lanbide "oso lotua" dela, jai egunik edo oporrik ez dela existitzen. Ipar Euskal Herriko Onetik eta Etxaldia gasnategiek, Berria eta Aldudeko Esne Kooperatibekin elkarlanean, laborariei bakan-zak bermatzeko egitasmoa jarri dute martxan. "Gogoeta bat egin da gasnategietan, pentsatzeko nola lagundu, nola hobetu laborarien baldintzak, eta horrela suertatu da langileen bakan-zak ordezkatzeko zerbitzua", adierazi du Antton Etxeberri, Onetik gasnategiaren eta laborarien arteko animatzaileak.

HAMAR OPOR EGUN LABORARIARENTZAKO KOSTURIK GABE

Frantziako Estatuko departamenduetan bazegoen lehenagotik laborarien ordezkatzeko zerbitzua martxan, baina oporretarako baino, bajak eta eritasunak betetzera zegoen bideratua. "Laboraria eri bada, zerbitzu horretara dei dezake bera ordezkatzeko langile bat eskatzeko. Lan kontratua egiten zaio langile berriari, eta momentuan etxaldeak ordaintzen badu ere, gero, estatuko diru-laguntzen bidez, gutxi



ONETIK GASNATEGIA

gorabehera, orduko 22 euroko soldatetik hiru edo lau basterik ez ditu jarri beharko laborariak", azaldu du Etxeberri.

Bakantzen kasuan, ordea, estatuko laguntzek askoz zati txikiagoa ordaintzen dute, eta oporrak hartu ahal izateko ordezkapena egiten duen langilearen soldataren zati handi bat laborarien kontu gelditzen zen. "Hor sartu gara gasnategiak, bakan-zak ordaintzeko diru zati bat jarri, laborariek ezer ordaindu behar izan ez dezaten", dio. Momentuz, urtean hamar opor egun -72 ordu- hartzeko aukera izanen dute kooperatibetako laborariek, euren poltsikotik ezer jarri beharrik izan gabe. "Frantses Estatuko laguntzarekin eta gasnategiek ordaindutako zatiarekin osatuko dira bakan-zak", gehitu du Etxeberri. Bi kooperatibetako kide diren 230 etxaldek dute oporrak hartzeko aukera, eta haien

etxaldeko lanak departamenduko ordezkatzeko sistemako langileek egingen dituzte bitartean.

GAZTEAK LABORANTZARA ERAKARTZEKO

"Laborariek ere behar dute bizi soziala, etxaldek ateratzea bestelako gauzak egiteko eta karga mentala kentzeko", dio Etxeberri. Belaunaldi gazteagoei begira, lan baldintzak hobetzea ezinbestekotzat du gasnategiko animatzaileak: "Gasnategiek laborariak behar dituzte, eta, nola egingen dugu

hemendik 20 urtera gasna izateko, esnea izateko? Bakantzarik gabeko lan bat proposatzen baduzu, agian, beste toki batera joanen dira lan bila gazteak".

Oporrak bermatzeko diru-poltsatik harago joan da proiektua: oporrez gain, urte osoan zehar etxaldeetan laguntzeko, hainbat laborari elkartu eta langileak kontratatu dituzte, departamenduen eta gasnategien laguntza baliatuta. "Baigorri inguruan zortzi laborari elkartu dira, eta urte osoarako denbora osoko lan kontratu bat egin diote langile bati; zortzi etxaldeetan aritzen da langile hori, txandaka, plangintza batekin". Baigorrikoa bezalako beste lau talde osatu dira hainbat eskualdetan. "Urte guzirako eta denbora osoko bost enplegu sortu dira honezkeroko sistema horrekin", amaitu du Etxeberri. ●



HEMEN DAGO
NAFARROA

NAFAR KALITATEA

Zigilu honen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA

ReynoGourmet.com

Ernest Hemingway-k mendea egin du Euskal Herrian

1923ko sanferminetan ezagutu gintuen, eta urtebete geroago Irati aldera jo zuen atsedean bila. Baiona, Garazi, Donostia, Iruñea, Gernika, Bilbo... guztiak izan ditu aipagai bere literatur lanetan. Uztail honetan 100 urte dira Irati ibaia eta inguruko baso eta bazterrak ezagutu zituela, eta gerora ohiko bisitaria izango zen gurean. Iratiko egonaldiak hainbat pasarte hartzen ditu 1926an argitara eman zuen *Fiesta* (Festa) nobelan.

PATXI GAZTELUMENDI

Jardunaldiak antolatu dituzte Donostiako Kursaalaren eta Bilboko Carlton hotelean uztailearen 14tik 20ra: *EH eta EH -Ernest Hemingway eta Euskal Herria-*, *Ernest Hemingway conference*. Topaketatxoa ere egingo da Auritzen, Orbaizetako fabrikari eta Aribe artean, uztailearen 28an: *Ernest Hemingway eta Irati*.

Iñaki Sagarna historialari eta irakaslea aritu da, hasiera-hasieratik, *EH eta EH* konferentzia antolatzen: “Kasualitate multzo handi baten azken katebegia da kongresua Euskal Herrian egin izana. 2019an hasi zen guztia, master ikasketak Boisen burutu berri nituenean eta Idahoko The Community Library elkarrekin hiru hilabetetarako beka bat eskaini zidanean, Ketchumen”. Hemingwayek bere buruaz beste egin zuen etxea kudeatzen du aipaturiko elkarrekin, eta Sagarnak jasotako beka bere etxean geratu ziren objektuak sailkatu edo ikeritzeko helburua zuen, berez. “Hasiera batean objektuen katalogazio lan bat besterik ez nuela egingo uste nuen. Dena den, hara heldu bezain laster, Idahon

bertan, Hemingway eta bertako euskaldunen arteko harremana batere ikertu gabe zegoela jabetu nintzen. Baimena eman zidaten katalogazioaren ordez ikerketa hori burutzeko. Hiru hilabeteko egonaldia bukatzerako, hogeitau erlazio azaleratu nituen Idahoko euskaldun eta Hemingwayren artean”, dio Sagarnak. Euskaldunen eta Hemingway idazlearen arteko harremana ikertzen hasi orduko, Edorta Jimenez eta Javier Muñozekin jarri zen harremanetan; bi horiek *Basque Route* delako proiektuan ari ziren lanean ordurako.

Jimenez ere aspalditxotik ari da Hemingway eta euskaldunen arteko harremana ikertzen eta horri buruz idazten. *Hemingway eta euskaldunak zerbitzu sekretuetan* liburua argitaratu zuen Susa argitaletxearekin, eta *SanFermingway* Txalapartarekin. Horrela mintzo da Jimenez, gaiari buruz galdetzean: “Gai honi ekitean izan nituen bihozkadak badijadi azkenean ere zuzenak izan direla. Horren lekuko argiena *Hemingway eta Euskal Herria* erakusketa izan da. Sagarnak eta biok atondu genuen, Gernika-Lu-

moko Euskal Herria Museoa. Gero hor zehar ibili da, eta uda honetan Donostian dago, Aieten, Hemingway Society delakoaren urterik behineko biltzarra han eta Bilbon egingo dela baliatuta”. Sagarnak AEBetako artxiboetan zein bertokoetan topatu dituenak inportanteak direla dio Jimenezek.

AEBetan antolatu zuten konferentzia batean hizlari aritu zen Sagarna. Antolatzaileei gustatu zitzaizen eta harreman horretatik etorri da orain berak Donostiako eta Bilboko nazioarteko halako topagunean murgildu izana. Kongresu horien balioa azpimarratu du Sagarnak: “Marko akademikoaz gain pisu sozial handiko kongresua da; bost bat otordu handi, bizpahiru 250 pertsonakoak, eta kontzertu pare bat ere antolatu behar izan ditut”. Kursaal eta Carlton hotelean, 180 ikerlari eta idazleren hitzaldiak, Arabar Errioxara irteera bat, zesta punta partida Bilboko Deportivo frontoian, eta konferentziako lehen egunean Amets Arzallus eta Maialen Lujanbio bertsoetan, Xabi Payaren bat-bateko itzulpenarekin, euskaratik ingelesera.



Hotel Burguete: errepresio frankistaren lekuko

Ernest Hemingway idazlearen joan etorriez asko idatzi da han eta hemen. Festazale eta zezenzale moduan baino ez digute erakutsi bere irudia. Idazlea baina, gizon konprometitua ere izan zen. Hori baieztatzera datoz Josu Jimenez Maia eta Edorta Jimenez idazleek lekukotzak.

Hotel Burgueten hartu zuen ostatu, Auritzen, 1924an eta 1925ean Irati aldera hurbildu zen lehen aldietan. Bere adiskide batzuk Donejakue bidea egiten ari ziren Donibane Garazitik, eta Iruñera joan-etorria egiteko leku aproposa izanen zela iritzi zion idazle estatubatuarra. Gerora, urteetan literatura asko egin da gaur egun Hostal Burguete den atsedean leku eta ostatuaz. Atsedean hartzeaz gain, inguruko erreketan arrantzan aritzeko profitatzen zuen egonaldia Ernest Hemingwayk, orduan gazte zela. Garai hartan, Victoriano Urdiruz auriztarra zen hotelaren jabe eta kudeatzailea. Urte batzuk geroago, Francoren altxamendu eta erreprezioaren ondorioz, Urdiruzen bi seme ihes egin zuten Auritzetik, Ipar Euskal Herrira ziurrenik. Hotela konfiskatu zioten indar frankistek, eta kuartel militar gisa erabili zuten zenbait urtez.

Desagertutzat eta hiltzat ere eman zuten alde egin zuen semeetako bat, Victoriano Urdiruz. Baina 1940an itzuli zen, baita atxilotu eta espetxeratu ere. Egonaldi laburra egin zuen giltzapean. Hotela berreskuratu ahal izateko, diru kantitate oso handia ordainarazi zioten, baina ordaindu zuen. Hala, 1941ean berreskuratu zituen Urdiruzek hotela eta bere jarduera.

Beste seme bat ere, Gursen atxilotaldian egona, hiltzat eman zuten, baina berak ere Auritzera itzultzea

lortu zuen. Urdiruztarren artean, ideia ezkertiarrekoak gehienak, hainbat ahaide izan ziren erreprezio frankistaren biktima, eta ezaguna da, adibidez, Osasuna futbol taldeko entrenatzaile izan zen Emilio Urdiruzen kasua: 1936an, Osasunako entrenatzaile zela, ihesari ekin behar izan zion, eta gerora, 1943an, behin erbestetik itzulita, atzera ere futbol taldearen ardura hartu zuen.

HOTELA BERRESKURATU ZUEN SEMEAREN SENTENTZIA

Iruñean 1940ko otsailaren 17an sinatutako sententziak hasiera haxe dauka (gaztelaniaz): "Aurrekari errepublikarra eta ideologia ezkertiarra

duen Victoriano Urdiruz Larequi, zigortua, ez da frogatzen bere ideiekin bat datorren alderdi eta mugimenduren batera afiliatuta dagoenik. Mugimendu Nazionalaren altxamendua jazo eta egun gutxira Lurralde Nazionaletik alde egin zuen, 36 eta 27 urteko seme banarekin, atzerriko egonaldiaren arrazoirik justifikatu gabe".

15.000 pezetako isuna ordainarazi zioten Victoriano Urdiruz Auritzeko hotelaren jabeari, eta horrela berreskuratu ahal izan zuen jarduera eta lana. Gaur egun, Hostal Burguete Auritzen dago, turismoari emana. Herriko ostatu bat gehiago. Eta jabeak Victoriano Urdiruz zenaren senideak dira, euskaldunak.

Hemingway, Hotel Burgueten.



KONFERENTZIAN, EUSKARAZ

Euskal idazleak ere izan dira hizlari nazioarteko konferentzia honetan. Eta euskaraz parte hartu dute. Edorta Jimenez eta Josu Jimenez Maia mahai inguru batean aritu ziren. Hemingway eta Gernikaz aritu zen lehena, eta bigarrenak, itzultzaile eta poetak, Hemingwayren poesia hartu zuen hizpide. Ibai Iztuetak Pio Baroja eta Hemingwayren lanak konparatu zituen eta Kirmen Uribe *Elkarrekin esnatzeko ordua* liburuko pasarteak hautatu, non, besteak beste, Manu de la Sota eta Ernest Hemingwayren arteko gutun bidezko harremanaz solastatu zen. David Rio EHUko katedradunak, berriz, Robert Laxalten eta Hemingwayren lanen arteko konparaketa egin zuen, ingelesez. Hizkuntza anglosaxoiaren ostean, euskara izan da kongresuko bigarren hizkuntza garrantzitsuena. Hori ez da beti gertatzen.

Edorta Jimenezek lau hitzetan eman digu bere hitzaldiaren laburpena, zeina gerora argitaratzea ere espero duen: “Ernest Hemingway ez zen Gernikan izan bonbardaketaren egunean, eta hala ere hari buruzko informazio zuzena eta aberatsa bildu zuen; tartean, haren testiguen lekukotasuna ere badaukagu. Andres Untzain han izan zen, esaterako. Hemingwayren hirugarren emazte Martha Gellhorn, gainera, Gernikan gertatuak munduari jakinarazten ahalegindu zen”.

“ ”

1920 eta 1930etako hamarkaden bueltan gure inguruan ibili zen Hemingway hura benetan idazle emankorra zen

Iñaki Sagarna, historialaria

ESTEREOTIPOAK HAUSTEKO DAUDELAKO

Josu Jimenez Maiari ere zalantza sortzen diote Hemingwayri buruz dauzkagun estereotipoek: “Beti irudikatzen dugu sanferminetan mozkor, alkoholarekin gehiegikerietan... eta nik uste dut bada-goela beste Hemingway ezezagun bezain interesgarria, bere literatura eta bere izaera ongi ulertzeko”. Bere esanetan, funtsezkoa da Hemingwayk Iratin eman zituen garaian berri izatea, egin zituen ibilaldiak ezagutzea, paisaiak, bizipenak eta lagunak. “Sanferminen atarian, komunikabide gehienek beti transmititzen diguten Hemingwayren gaineko irudia estereotipoz bete da, aski komertzializatua, kontsumismoa bultzatzen duena.

Eta niri gehiago interesatu zait Hemingway literaturaren ikuspuntutik”.

Edorta Jimenezek ere badu arrangura Hemingway idazlea hemen zelan ezagutzen dugun galdetzean: “Patu petrala Hemingway harena. Sanferminak mäsifikatu ei zituen, bene-benetan izenezkoa zena, bide batez esanda. Laido hori dela eta, Nafarroa Garaian, nork irakurri du *Fiesta* liburua? Nork daki Donostiaz idatzi zuena? Edo *Uda lanjerosa*, idatzi zuen azkena, Bilbon hasten dela? Edo ‘euskaldun hauek miragarriak dira’ idatzi zuela Nafarroako menditarrez, eta ez Bizkaiko, Gipuzkoako edo Arabako euskaldunetz. Ezagunena da, dena dela, Ernest Hemingway II. Errepublikaren laguna eta antifaxista osoa izan zela”. Argi mintzo da Edorta Jimenez, zuzen, aho bizarririk gabe; ikertu, sakondu eta asko irakurrita, eta ostean idatzita ere bai.

Sagarnarentzat ere Hemingwayz saldu diguten irudia eta berak ezagutu duena arras ezberdinak dira. “Frankismoak saldu nahi izan zuen agure ileurdin, zahar, mozkorti festa-zale... hori baino askoz ere gehiago izan zen Hemingway. Zoritxarrez, gure inguruetan, frankismoan zehar ondu zen Hemingwayren irudi hori besterik ez zaigu heldu, baina 1920 eta 1930etako hamarkaden bueltan gure inguruetan ibili zen Hemingway hura benetan idazle emankorra izan zen”. Ez dela asko irakurtzen gaineratu du Sagarnak, haserre samar: “Eleberrien izenak gutxienez ezagutzen dira. Baina ipuin idazle bikaina izan zen, eleberrigile ona baino gehiago”. Zorionez, 2011n Xabier Olarrak bere ipuinen bat edo beste itzuli zuen euskarara, eta Koro Navarrok, *Fiesta: Eguzkia jaikitzen da* ere itzuli du aurreko urtean.

Lehen Mundu Gerraren ostean, gerraren aurkari amorratu bilakatu zen Hemingway. Sagarnak azpimarratzen duenez, argiki ikus daiteke hori *A Farewell to Arms* (Armei agur) eta idatzi zituen hainbat poemetan –horietako batzuk euskaratu ditu dagoeneko Josu Jimenez Maiak-. Gerrarteko garaian gerra arbuiaut arren, Sagarnaren esanetan, argi ikusi zuen Espainiako gerran faxismoari aurre egin behar zitzaiola: “Hori guretzeko ikaskuntza on bat izan daiteke”. Horrez gain, zera zehaztu du: “Hemingway amerikar inperialismoaren aldeko sinbolotzat dauka jende askok, baina uste denaren aurkara, ez da horrela. AEBetako Gobernuarekin oso kritikoa zen, esaterako, eta Kubatar iraultzaren alde publikoki lerratu zen hil aurreko urteetan”.



Hemingway eta Juan Duñabeitia itsasgizonaren erretratua. Adiskideak ziren. Jose María de Ucelay y Uriartek egina.

NARRATIBAK KATEATUTA

Josu Jimenez Maiak aitortu du Hemingwayren ipuinek harrapatu egin zutela. *Francis Macomber eta beste zenbait ipuin*, Igela argialetxeak plazaratutakoa, biziki gozatu zuen berriozartarrak: “Niretzat aurkikuntza bat izan ziren, beste literatur mota bat ekarri zuen Hemingwayk hor. Iradokitzailea, esaldi laburrak, menpeko esaldi gutxi, zuzena eta asko kontatzen duena”. Eta poesiara heldu zen gero. “Berak ez zuen poesia anitz idatzi, baina bere bizitza osoan idatzitako 88 poema horiek ematen dizkigute bere narratibaren gaineko eta bere bizitzaren gaineko bizipen ugari”. Josu Jimenez Maiak Ernest Hemingwayren hainbat poema euskaratu zituen eta *Maiatz* aldizkarian argitaratu. Aurtengo uztailean bertan, Hemingwayren efemeridearekin bat eginez, *Armiarma.eus* literatur sarean paratu dituenak.

Edorta Jimenez ere Hemingwayren atzetik munduko txoko askotan izandakoa da, Urdaibaitik Kubara, besteak beste. “AEBetatik Nevadako ortziaren irudi ahaztezina ekarri nuen. Eta hango unibertitate sistemaren ezagutza gaineko bat. Hango euskaldunen mundua ere ezagutu nuen. Batik bat etxean hartu ninduten Joe Gerrikagoitia eta haren emazte Hellenen aldetik”. Baita beste lekuetako oroitzapenak ere: “Kuban, hara lehenengoz joan nintzenez, Nevadara baino lehen, 2000an, Joseba Sarrionandiarekin eta beste aterpetu batzuekin topo egin nuen. Sakonko esperientzia izan zen hango gureen bizimoduaz jakitea. Kubara beste hainbatetan joan nintzen, nahiz ikertzera nahiz lagunak bisitatzera”.

Zer esan Kubaz? “Behin joan eta iritzi batekin itzuli, beste behin joan eta lehengoaren kontrako beste batekin itzuli, ez dakit ba orain balantzerik egiteko gai naizenik. Ez naiz ahaleginduko”, bota digu azkenik Edorta Jimenezek, gaitik aldendu gura balu lez.

IRATIN TOPAKETA

Donostiako eta Bilboko konferentziari, Iratiko topaketak hartuko dio lekukoa. Kultur Olan egingo dira ekitaldiak, Nafarroako Kultur Ateneoak lagunduta.


Uztailaren 28an, Hotel Burguete-ko nagusia izan zen Victoriano Urdiruz omenduko dute lehenik, goizean. Ibilaldia egingo dute gero Auritzetik Orbaizetako fabrikara, oinez, bidean *Fiesta* liburuko pasarteak irakurrita.

“ ”

***Beti irudikatzen dugu
sanferminetan mozkor,
baina bada beste
Hemingway ezezagun
bezain interegarria***

Josu Jimenez Maia, idazlea

Orbaizetan, Hemingwayren iturrian bere omenezko irudi bat paratuko dute, eta bazkalostean hitzaldiak eskainiko dituzte Iñaki Sagarnak, Edorta Jimenezek, Ibai Iztuetak eta Cira Crespok. Il untzean, Joxe Miel Bidador poesia taldearen eskutik, Hemingwayren poema irakurraldia egingen da Aribeko balnearioaren inguruetan, Irati ibaia- ren ertzean. Udazkenetik aitzina, Auzperrin Mikel Antza idazlearekin hilerro batzen den irakurle taldeak *Fiesta: eguzkia jaikitzen da* liburua mintzagai izanen du.



Koro Navarro

“Idazteko modua da Hemingwayren alderdirik hoberena”

Fiesta *The Sun Also Rises* nobela plazaratu zuen Ernest Hemingway idazleak 1926an. AEBetako bikote baten ibilerak kontatzen ditu, Paristik Iruñera egiten duten bidea, tartean Baiona, Donostia eta Irati ere ageri direla. Koro Navarro (Donostia, 1955) itzultzaileak euskaratu zuen, Literatura Unibertsala sailean: *Fiesta*. Eguzkia jaikitzen da.

Euskaratzeari ekitean, zein izan zen zure lehen sentsazioa?

Itzulpen ororekin, beldur pixka bat izaten dut beti, nola moldatuko ote naizen. *Fiesta*-k, ohiko beldurraz gainera, halako errespetu bat eragiten zidan, hain obra ezaguna izanik, euskaldunontzat bereziki. Adiskide eta lagunek lagundu naute, eta gainera Literatura Unibertsaleko bildumakoa da liburua, hori ere lagungarria da. Lanerako baldintzak oso onak izaten dira –ez da txantxetako kontua–, eta azken urteotan argitalpenaz Igela eta Erein arduratu direnez gero, Inazio Mujika arduratu da testuaren berrikuspenaz, eta hori ere bermea da niretzat. Ondo zaindutako liburuak izaten dira. Bestalde, bilduma osatzen duten obrak mundu-literaturako obra nagusiak direlarik, denak dira oso interesgarriak. Halakoxea da *Fiesta*.

Zer iruditzen zaizu Hemingwayren idazteko modua?

Hemingwayren alderdirik hoberena, hain zuzen ere, idazteko modua da nire iritzian. Gogoan hartu behar da orain 100 urte idatzia dela *Belle époque*-n, lehen edizioaren azalean ikusten den bezala; Wikipedian dago irakurgai-, baina hala ere, oso idazkera modernoa da Hemingwayrena. Oso modernoa sentitzen da gaur egun ere, zuzen-zuzena, eta kazetaritzatik gertukoa, Anjel Lertxundik hitzaurrean azpimarratzen duen bezala. Garrantzitsua da, halaber, Hemingwayren idazkeran, eta honakoa ere esaten

du Lertxundik, zinemak eta zinemaren hizkerak nobela honetan duten pisua: paisaiak deskribatzeko modu zoragarria, kamera mugikor batetik bezala, eta elkarrizketak, zenbait lagunen arteko elkarrizketak, zuzenean balitz bezala emateko modu trebean.

Irati maiz aipatzen da, pertsonaiaren sanferminetako joan-etorri horretan. Zerbaitek deitu zizun arreta?

Nobelako tramaren atsedengune guztiz garrantzitsu bat da Irati, Donostia bezalatsu, eta, gutxiengo bada ere, Baiona eta Ipar Euskal Herria. Pariseko eromen batez ere alkoholikoaren ondoren, Iruñeko eromen orobat alkoholikoaren eta zezenen zurrunbiloaren ostean, atsedengune ezin hobeak eta eder-ederrak ageri dira liburuan. Ederrena, seguruen, Iratikoa. Natura garbia, lasaia, barea, isila... Natura bete-betea, pertsonaien bizimodu zalapartatsuaekin kontrastea. Pertsonaiek behar zuten hori, eta irakurleak eskertzen du. Nik, behintzat, asko eskertu nuen. Gainera, pertsonaiek ere aldatu egiten dira naturaren eraginpean, hausnarketarako bidea ematen die, eta

egiako sentimenduak agerrarazten dizkie. Iratin oso nabarmena da hori, eta, horregatik, funtsezkoa da nobelaren bilakabidean.

Toki izenak, ibaiak, lekuak... Nola moldatu zinen itzulpen lanetan?

Ez nuen arazorik izan. Euskal Herrikoek denek dute izena euskaraz, eta horiexek erabili ditut nik, jakina. Arrotzak direnak, eta euskaraz baliokiderik ez dutenak, bere horretan daude liburuan.

Lan garrantzitsua da bere obran. Halakotzat daukazu zuk ere?

Bai, noski. Baina, nire kasuan, ez dakit zenbateraino naizen gai liburuaren berezko balioa eta gure herriaren agerpenak egiten didan ilusioa bereizteko.

Askotariko itzulpenak dituzu eginak orain arte. Badu leku berezirik lan honek?

Gustu “arraroa” dudala esan behar dut. Oroitzapenik onenak *Nikolas Txikiren abenturak* dakarzikit, eta Agatha Christieren *Katuak usategian* itzultzen ere primeran pasatu nuen. Liburu errazak dira, laburrak, umore handikoak... eta agian ez dut halako erantzukizunik sentitzen.

Baina *Fiesta*-k badu leku berezia. Arrazoi pertsonalengatik: nagusiki, pozik geratu nintzelako hitanoaren erabilerarekin, joko handia eman baitzuen nobela honetan. Nik ez dut hitanoa ikasi/erabili, gure inguruan ‘itsusia’ zen –Donostia, lehen ikastolen sorreran, 1960ko hamarkadan–. Pixkana jabetu naiz hitanoaren garrantziaz eta bere balio literarioaz: *He/She, el/ella* ez dagoelarik euskaraz, “zulo” hori betetzeko, eta lagunarteko giroa islatzeko. Agian berorikakoa errebindikatu beharko da, beste baliabide bat baita. Eta bestalde, *Fiesta*-gatik Euskadi Itzulpen Saria eman zidaten. Hori pozgarria da oso, eta sine-tsita nago liburuaren berezko kalitateak baduela parte bat horretan. ●





Bertso-zopa

Osatu Igor Elortzak 2023an Hondarrbian botatako bertsoa. Laguntza behar izanez gero, bertsoari falta zaizkion hitzak zopan bilatu. Doinua: *Aita izena kanta beharrrak*. Gaia: Hondarribiako festak dira. Goizeko hirurak, seigarren gin-tonika edaten, dantzan, kantuan... zabiltzala, mugikorra begiratu, eta aspaldiko bikote ohi baten mezu berri bat duzu.

Bachata jarri dute ta nabil harantza eta _____ ta poltsikoan hor sentitu dut nik _____ baten antza eskua sartu ta mugikorra begien parera _____ begiratu dut izena eta kontxo _____ da Arantza ta esaten dit lehen baino hobeto egiten dudala _____. (bis)

Hori ikusi eta piztu zait nire barruko _____ buelta eman dut ta ematen dut nik ia-ia erbia hor _____ dut Arantza hartuta dantzan pista ren _____ ta _____ dut: noan harritu dezadan nire herria baina heldu naiz bere parera ta izoztu zait _____. (bis)

Ta bachatatik saltza azkarrera _____ doa in crescendo ta ni pentsatzen dantzan _____ hala etxera joan sendo kuadrillakoak ere hor dabiltz balu, balitz ta _____ erretiratu egin naiz umil neureztat jan mila ego behinola _____ atera zena gaur ez da ondo _____. (bis)



X I H E R Z A T Z O U B P R A
N J I G N E T S U K I E F D U
S T R E S O I H E U N H Z G D
L I T R G I R O A T Z N U P B
I M E D X S R N S R P R A I G
A G N I B A E A R A R M L A E
B O G A X K T N H S M B A I R
P I O T L U K T X E D A Z D R
A Z L N D A H Z I M M B Z R I
R A B D F K X A T K X E D A A
E A D A R P E A S A Z U N O P
R U A B L D A S P Z J I Z G A
A S B K L E L X D T D P A L P
D T X A N X G A E N K U U G X
X G A A S M Z O J A T D G R A
H G I H O E R A T D X O J O A

Sudokua

ERRAZA

	2			8	4	9		
3		1	7					4
4	5		2	3	9	7	6	1
7	6		8		2			
5			6			8		9
	1	9	5	4	3	6	2	7
						1	7	
1	8	5	9		7			
	7		4	1	8	5	9	6

ZAILA

					7		5	
3			5				9	7
6	7				3			
	6			8				9
					6			5
9			3					
			7	1	2		3	
				9				7
	1	2		3		4		

Gurutzegrama

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1									
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									



infititiboa. **7.** Zenbait animaliak bekoki aldean dituzten hezurrezko luzakinak. **8.** Eskas, murrizt. / Zorne, gai zornetsu.

GOITIK BEHERA:

1. Sinatu. 2. Bero bafada. 3. Ur izoztu. / Nondar atzizkia. 4. Dago (alderantziz). / Otea hazten den toki. 5. Argazkiko herria. 6. Haitzuloetako sarrera estua. / Rhesus faktorea. 7. Egiptoko mitologian, Ilargiaren jainkoa. / Zeuri. 8. Liskar. 9. Afrikar.

EZKER-ESKUIN:

1. Biloa. / Sarrera nahiz irteera. 2. Zaldi handi. 3. Ostrukaren antzeko hegazti. / Itsusi. 4. Ugariak. / Singularreko bigarren pertsonaren izenordaina, lagunartean. 5. Paladioaren ikurra. / Itxurak, moldeak. 6. Eako biztanle. / Ukatu aditzaren

EBAZPENAK

Bachata jarri dute ta nabil/harantza eta honantza/ta poltsikoan hor sentitu dut/nik dardara baten antza/eskua sartu ta mugikorra/begien parera atxa/begiratu dut izena eta/kontxo hemen da Arantza/ta esaten dit lehen baino hobeto/egiten dudala dantza./ Hori ikusi eta piztu zait/nire barruko goardia/buelta eman dut ta ematen dut/nik ia-ia erbia/hor ikusten dut/Arantza hartuta/dantzan pistaren erdia/ta pentsatu dut: noan harritu/dezadan nire herria/baina heldu naiz bere parera/ta izoztu zait/gertia./Ta bachatatik saltza azkarrera/gima doa in crescendo/ta nire pentsatzen dantzan sartuko/hala etxera joan sendo/kuadrillakoak ere hor dabiltz/hatu, balitz ta balego/erretiratu egin naiz umil/neureztat jan mila ego/behinola gatazki atera zena/gaur ez da ondo irteengo.

7	1	2	8	3	5	4	9	6
3	8	6	4	1	2	7	5	9
4	5	9	7	6	3	8	2	1
9	4	8	3	5	1	7	6	2
5	6	7	8	4	3	1	9	2
2	3	1	9	7	6	8	4	5
8	7	5	1	9	3	2	8	4
3	2	4	5	6	8	7	1	9
1	8	9	4	2	7	6	5	3

ZAILA

2	7	3	4	1	8	5	9	6
1	8	5	9	6	7	4	3	2
9	4	6	3	2	5	1	7	8
8	1	6	5	4	3	6	2	7
5	3	2	6	7	1	8	4	9
7	6	4	8	9	3	2	3	1
4	5	8	3	9	3	7	6	1
3	9	1	7	5	6	2	8	4
6	2	7	1	8	4	9	5	3

ERRAZA

X	I	H	E	R	Z	A	T	Z	O	U	B	P	R	A
N	J	I	G	N	E	T	S	U	K	I	E	F	D	U
S	T	R	E	S	O	I	H	E	U	N	H	Z	G	D
L	I	T	R	G	I	R	O	A	T	Z	N	U	P	B
I	M	E	D	X	S	R	N	S	R	P	R	A	I	G
A	G	N	I	B	A	E	A	R	A	R	M	L	A	E
B	O	G	A	X	K	T	N	H	S	M	B	A	I	R
P	I	O	T	L	U	K	T	X	E	D	A	Z	D	R
A	Z	L	N	D	A	H	Z	I	M	M	B	Z	R	I
R	A	B	D	F	K	X	A	T	K	X	E	D	A	A
E	A	D	A	R	P	E	A	S	A	Z	U	N	O	P
R	U	A	B	L	D	A	S	P	Z	J	I	Z	G	A
A	S	B	K	L	E	L	X	D	T	D	P	A	L	P
D	T	X	A	N	X	G	A	E	N	K	U	U	G	X
X	G	A	A	S	M	Z	O	J	A	T	D	G	R	A
H	G	I	H	O	E	R	A	T	D	X	O	J	O	A

- ESKER-ESKUIN: 1. ILEA, ATEA, NAROKA, HI, 5. PD, TRAZAK, 2. ZALDITO, 3. EMU, ZATAR, 4. URRU, HIRU. GOITIK BEHERA: 1. IZENPETU, 2. LAMADA, 3. ELUR, TAR, 4. AD, OTADI, 5. IZARRA, 6. ATRAK, RH, 7. TOT, ZURI, 8. AHAKAR, 9. AFRIKAKO.



Bigarren aukerak

 UXUE GUTIERREZ LORENZO  HORTZMUGA KONPAINIA

Bilboko Casilda Iturrizar parkea kale antzerkiaren topaleku bihurtzen da urtean behin. Aurten, 25 urte betetzen ditu Kalealdia festibalak, eta uztaileko lehen astean 32 konpainiaren 86 emanaldi egon dira ikusgai.

Uztailaren 3an, berehala egin zait deigarria parkearen urmaletako baten alboan dagoen egitura koloretsua. Sare batek eusten ditu plastikozko hondakin koloretsuak, eta egiturak osatzen du hastear den emanaldiaren oholtoa: Hortzmuga konpainiaren *Agurea, urpekaria eta itsasoa* obra. 1989an sortu zen Hortzmuga konpainia, eta ontzen dituzten ikuskizunetan kritika sozialaren birtatez kontzientzia piztea dute helburu.

Adineko gizon bat agertu da oholtzan lehenengo, eta erdi itsasontzi/erdi etxe itxura duen espazioan mugitzen hasi da: Ulises da bera. Zaborra arrantzatu, sarean bildu eta egiturari erantsi dio. Horrela eraiki du bere egonlekua. La-

sai bizi da Ulises bere txokoa, gainera koengandik aldentuta.

Felix urpekaria dugu bigarren protagonista. Gaztea, energiak bete eta Instagram-en ezaguna. *Hater-ak, like-ak* eta *follower-ak* dira bere kezka nagusia eta erronkak grabatzen eta sare-ratzen igarotzen du eguna. Gaurkoan, olatu erraldoi batek nola irensten duen grabatzea da bere zeregina. Itsaso(a)k, ordea, bestelako egitekoa du prest Felixentzat.

Hirugarren protagonista da, akaso, esanguratsuen: Itsaso. Urdinez jantzita doa itsasoa den Itsaso, eta besoetatik eutsita dituen hegal handiekin olatu mugimendua simulatzen du. Gaixo dago, gizakiok isurtzen ditugun hondakinek itota. Ulisesi eramaten dizkio hondakinak, agureak bigarren bizitza bat eman diezaien. Gaurkoan, berriz, Felix eta Ulisesen arteko enkontrua sortu nahi du Itsasok. Batak bestearengan-

AGUREA, URPEKARIA ETA ITSASOA

NOIZ: Uztailaren 3an

NON: Bilboko Casilda Iturrizar parkean (Kalealdia).

dik zer ikasi badutela iruditzen zaio.

Antzezlanak Ulisesen eta Felixen arteko harremanaren bitartez hainbat gai mahaigaineratu ditu: Felix pantailatik kanpo bizitzera behartuta dago Ulisesen uharte isolatuan. Ulises, aldiz, aspaldiko partez beste gizaki batekin harreman-tzera behartu du egoerak.

Bigarren aukeren aldarria da antzez-lana, natura eta ingurumena zaintzeko garaiz gaudela iradokitzen duen proposamen esperantzatsua. Felix urpekariak hezuramitzen du esperantza. Gazteak Ulisesen lekukoa hartu du, eta itsasoa zaintzeko egitekoa bere gain hartu. Bigarren aukera du Felixek, bigarren aukera dute itsasora isuritako hondakinek eta bigarren aukera izan dezake kontsumismoan eta zaborraren metaketa zoroan murgildutako gizarteak. Felixen adibidea gure egiteko aukera eman digu antzezlanak ikusleoi, itxaropen izpi bat bailitzan. ●



LIBURUA

Erasoari aurre egiten



ETA ZER?
SONIA COUDERT
ITZUL: IMANOL SALEGI
 IBAIZABAL, 2024

XABIER ETXANIZ ERLE

Liburu honetara hurbiltzen denak lehenbizi G. Mabire-ren irudiekin egingo du topo. Komikiaren estiloko irudiak dira, trazu oso zehatzak eta kolore bizikoak, pertsonaiak eta egoerak erraz interpretatzen laguntzen dituztenak. Irudi horiek testuarekin bat datoz: laburra eta zehatza da, eta gertakarien deskribapenera mugatzen da. Alde horretatik, liburu egokia da irakurle berrientzat, eta haurrei kontatzeko.

Eta zer? istorioa bullyingaren ingurukoa dugu. "Eskolako jolastokia izuaren erresuma bihurtu du Basilik. Eguna joan eta eguna etorri, ikaskideren bati eraso egiten dio". Horrelaxe hasten da liburu honen kontakizuna. Irudian, Basilik krokodiloa haur batengana –lehoi kumearengana– zuzentzen da, patioan bi laguntzailerekin, eta gainerako ume

guztiak ikaratuta ari dira Basiliri begira.

Labur-labur, ezkerreko aldean eraso bat eta eskuinekoan horren ondorioa ikusi ahal izango ditugu hurrengo orrietan; harik eta ume berri bat eskolaratu arte. Andreak –geperdo kumea– jolastokian sartzean Basilirekin egiten du topo lehen aldiz. "Aizu! Aurpegia orbanez beteta daukazu! Puah, puah, puah!", esaten dio Basilik, eta guztiak izututa eta isilik geratzen dira Andrearen erantzunaren zain. Honek, aldiz, "eta zer?" erantzuten dio, begietara zuzen-zuzen begira. Hortik aurrera jolastokiko egoera erabat aldatuko da, eta liburuaren amaieran ulertu ahal izango dugu Basiliren jokabidearen arrazoia.

Liburua, aurretik aipatu dugu, oso egokia da haur txikien artean –eta agian ez hain txikiekin ere– errespe-

tuaz, indarkeriaz, bullyingaz aritzeko; baina horrelakoetan sartu barik ere, istorioa irakurriz –entzunez, ikusiz– irakurleak gozatu egingo du eskolan gertatzen denarekin. Hasieran, segur aski, haserretuta edo gogaituta egongo da, baina amaieran irribarretsu eta gogetari emana.

Kontakizunaren erritmoa –narratioarena nahiz irudiena– oso egokia da eta istorioarekin aurrera jarraitze- ra animatzen gaitu; testua ere zehatza da, deskribapen gehiegi gabe eta gertakariak ongi ulertzeko moduan azalduta. Irudiek primeran laguntzen dute narrazioa ulertzen eta idatzitakoa osatzen. Alde horretatik, beraz, oso ondo egina dago; eskoletan, baina baita etxeko gozotasunean ere, kontatzeko aproposa. ●



MUSIKA

Musika Hamabostaldiko nire gomendioak



DONOSTIAKO MUSIKA HAMABOSTALDIA
INGO IBANEZ

Musika Hamabostaldiko bi ekitaldi, 2023koak.

MONTSERRAT AUZMENDI DEL SOLAR

Egun gutxi barru, abuztuaren 1ean, Musika Hamabostaldiaren edizio berria hasiko da, musika klasikoa-ren zaleentzako udako hitzordu faborittoa. Proposamen ederrez betetako hilabetea izango da. Gainera, Donostian izango diren ziklo klasikoetatik kanpo, oso kontzertu onak izango ditugu leku berezietan: Arantzazu, Chillida-Leku, Orio, Urrestilla, Leire, Senpere... Eskaintza benetan tentagarria da. Pena ematen du hilabete horretan oporretan joateak.

Programa aspalditik ezagutzen da, beraz, niri dagokidana da, urtero egiten dudana bezala, zita batzuk gomendatzea.

Nahiz eta batzuetan esan ohi den Kursaal Zikloan ematen diren kontzertu handiek beste leku batzuetan aldi berean eskaintzen diren harribitxi batzuk ahaztarazten dizkigutela, egia esan, aurten urrezko uneak izango ditugu gure auditorioan.

Europako lau orkestra bikain izango ditugu, Euskadiko Orkestraren emandiaz gain, noski. Zaila egiten zait kontzertu horietako batzuk aukera-

tzea, baina hala egingo dut: Orchestre Philharmonique du Luxembourg-en inaugurazio-kontzertuak, Mahlerren 5. sinfoniarekin –zoragarria errepertorio osoaren artean–, ikusmin handia sortuko du. Abuztuaren 18an, Budapest Festival Orchestra izango dugu Donostiako Orfeoiaekin, Mozarten 38. sinfonia eta Requiema eskaintzeko, Ivan Fischer fundatzaile eta zuzendari titularraren batutapean. Munduko hamar orkestra onenen artean dagoen taldeaz gozatze-ko aukera izateaz gain, programa benetan erakargarria da.

Ez galdu Orchestre Philharmonique de Radio France taldearen kontzertua. Orkestra senda eta soinu bikainekoa da, eta programa zoragarria eskaintzeaz gain –Debussy, Lalo, Ravel, Stravinsky–, Sol Gabetta biolontxelo bakarlariaren emanaldiaz gozatuko dugu. Lehen mailako bakarlari argentinarra da, eta zirrara eragiten du mundu osoan, bere perfekzio teknikoagatik eta, batez ere, bere nortasun musikal apartekoagatik.

Zikloa aldatuta, Victoria Eugenia An-

tzokian, abuztuaren 19an, piano-jotzailer gazte bat (17 urte) entzun ahal izango dugu. Esaten denez, ez da eta ez da izan ‘neska prodijioa’. Alexandra Dovgan ikusi gabe entzuten badugu, haren musika heldua nabarituko dugu, musikaltasun sakonez betea eta ibilbide luzeko pianista handi bati dagokiona.

Eta dena ondo egiten du. Bachetik Scriabinera, Beethoven, Schumann edo Rachmaninovetik pasata, Dovganek oso programa exigentea eta zoragarria eskainiko digu. Adibidez, Alexander Scriabinen 2. sonataren interpretazioa entzuteko irrikan nago.

Ez nuke inola ere galduko Abraham Cupeirok abuztuaren 29an Arantzazun eskainiko duen proposamena. Antzina-ko instrumentuak orkestra moderno batekin uztartzeak diskurtso harrigarria sortzen du. Musikari klasikoekin batera, Oreka TX, Eñaut Elorrieta eta Agus Barandiaranen *trikia* izango dira taula gainean, Bartok, Piazzolla, Cupeiro, Elorrieta bera eta Oreka TX interpretatzeko. Bonba bat. ●

Atentatu politikoa garai banaletan

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

Bueno, ba baieztatzeko moduan gaude: magnizidio-saiakerak ere sareetako eduki-ekoizleen logikaren menpe daude jada. Donald Trump tiroka hiltzen saiatu dira, kontua ez da Van Gogh erdi bat ere izan azkenean, baina notizia pantailan agertu den momentutik hiru minutu ere pasa ez direnean, begien aurrean dauzkagu: 1) atentatugilearen punteria txarrari buruzko memeak; 2) atentatua Trumpek berak prestatu-tako zerbait izan dela dioten konspiteoriak; 3) atentatua gehiegizko arreta jasotzen ari dela kritikatzan duten mezuak; 4) atentatuak Trumpi AEBetako presidentzia oparitu diola dioten iruzkinak; 5) atentatuaren telebistako irudien azterketa semiotikoak. Eta abar. Umoro beltza, hiper-susmoa, arretarekiko obsesioa, etorkizunaren iragarpenak, detaile guztiak zentzu baten bila arakatu behar hori. Dena batera aldi berean edonon.

Eta nik behintzat, geroz eta gehiago faltesten dut gertakariak prozesatzeko distantzia tenporal –eta, zer esanik ez, emozional– apur bat edukitzea. Gauzek ordena pixka bat edukitzea ere bai. Lehenbizi datu gordina, gero lehen erreakzioak, ondoren informazio gehiago, atzetik analisisa, jarraian bertso ofiziala zalantzan jartzea, segidan gertatu denaren pisu historikoa baloratzea, azkenik bromaren bat. Eta ez kakanahaste guztia batera.

Konparatu Kennedy hil zuen atentatuarekin: AEBetako magnizidiorik ezagunenetakoa gertatu zenetik lau urtera publikatu zuen J.G. Ballardek *John Fitzgerald Kennedyren hilketa goitik beherako auto-lasterketa gisa ulertuta* ipuin laburra, besteak beste honelako esaldiak dauzkana: “Aldapan behera egiten diren auto-lasterketen artean hau da biderik arrisksuenetakoa, Sarajevoko pistak bakarrik gaitzitzen du, baina hura 1914an itxi zuten”. Ordu-

rako irakurleak irentsiak zituen auziari buruz irentsi beharreko guztiak eta bazekien gertakariaren pisua zein zen ere –oso larria izan zela, bai, baina ez zela Mundu Gerra bat eragiteko modukoa izan, Sarajevon hil zuten artxiduke austro-hungariarraren kasuan bezala–. Ballardek sedimentu horren gainean –tira, eta Alfred Jarryk Jesukristoren gurutziltzatzeari buruz egindako antzeko testu baten gainean– altxa ahal izan zuen bere umore beltzezko dorretxoak. Sedimentu hori ezinbestekoa da sinbolo berriak jaiotzeko. Gaur egungo errealitatearen kontsumo-ereduan, oso garesti dago sedimentu hori.

Kultura digitalak historiaren adarrak gurinez igurtzi ditu. Eta gertakariak heldu nahi diote, saiutzen dira adarrei atxikitzen, baina ia denek irrist egiten dute. Trump hiltzeko saiakera izango ote da dingilizka geratuko den gauza horietako bat? Ala kriptotxanpon baten kotizazioak bezala, egunotan oso goian egon ondoren, hondoa joko du beste zerbaiti buruzko memeek, konspiranoiek eta katastrofe berrien iragarpenek gure arreta eskatzen dutenean? Eskuin mutur yankiak atera diezaiokeen etekina baztertu gabe, kezkarriena horixe iruditzen zait, alegia, mundu honetako kontuekin erlazionatzeko normal-normala bihurtu zaigun modu hau. Ezerk ez du garrantzirik, dena desagertzen da pantailan gora: gaur AEBetako presidentegiaren aurkako tiroketa da; baina bihar, etzi, etzidamu, gauza bera izango da palestinarren aurkako genozidioarekin; eta hortik beherako guztiarekin, zer esanik ez.

Ezer ez baita inportantea. *Scroll* bat bezain leun eta indiferente bihurtzen ari gara denarekiko. Faxismo berriaren elikagai nagusia jarrera horretan dagoela iruditzen zait, eta ez Trumpek belarria odoletan eta ukabila itsututa egin zuen keinua bezalakoetan. ●



OTU

Sortu zuen istorioak



Zenbateraino egin dezake
hegan zure irudimenak?

Zenbateraino zara gauza
ipuin-kontalari trebeenen
mailan aritzeko?

Bota kartak eta **sortu istorioak!**

70 karta, irudimena, hizkuntza,
ahozkotasuna... ludikoki lantzeko, eta
batez ere, disfrutatzeko eta gozatzeko.

Prezioa **12 €**

OROIMEN HISTERIKOA

Nagore Irazustabarrenaren podcasta

*Historia diren istorioek txoratzten
gaituztenontzako saioa*



Asteartero
ARGIAN eta
audio plataforma
guztietan

 ARGIA.eus/podcast